

Sanprudentzioak Lazkaon



Gazta eguna
Idiazabalen

● **Tere Irastortza:**
Espainiako Kritika
saria

● **Ordiziarren**
euskararen aldeko
konpromisoa



patxi erretegia

Tel.: 943 801 901 LIERNIA

Maiatzaren 1ean Lierniko Patxi Erretegia berriro irekiko dugu!

Arrainak eta haragiak brasan

Betiko janaria



OIANGUREN BHI
ORDIZIA

Altamira auzoa z/g

Tlfnoa.: 943 880 862

Faxa: 943 164 121

012282aa@hezkuntza.net



OIANGUREN IKASTETXEA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak

- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Alemana, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 3tik 7ra



FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierrirako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Dolza Barandiaran, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde, Igor Sarriegi eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Maiatzaren 1ean Aralarko larreak irekitzeko festa Larraitzen

Enirio Aralar Mankomunitateak antolatuta, Aralarko larreak irekitzeko festa izango da maiatzaren 1ean, Larraitzen. Azaroan, Aralarko larreei atsedena emateko helburuarekin, ganadua herrietara jaisten dute artzainek eta ganaduzaleek. Enirio Aralar Mankomunitateak, egun ofizial bat jarria du ganadua berriz ere mendira igotzen hasteko. Egun hori, maiatzaren 1a da eta egun horren aitzakian, festa izaten da Larraitzen. Abere erakusketa (asto, behi, pottoka, behor...), eskulangintza saioak (artile, saski, abarka, pilota, gazta), ohiko tresnen erakusketa, bertako produktuen salmenta (ardi eta ahuntz gazta, taloak, ezti, sagardoa, orein produktuak, sendabelarrak...), eta Aralarko liburu, mapa eta liburuxkak ikusi eta erosteko aukera izango da goiz guztian zehar.

Beste hainbat ekitaldi ere antolatu ditu Enirio Aralar Mankomunitateak. Jarraian dituzue orduz orduko ekitaldiak:

10:00etan: Trikitilariak.

11:00etan: Arkupe dantza taldea, Larraizko bideetan zehar.

11:30ean: Aralarko larreak irekitzeko su-ziria.

Jarraian: Artzain txakurrekin proba ezberdinak.

13:00etan: Jaialdia: Juanito Mendizabal txiste kontalaria, Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidi bertsolariak, Miren Urkiola harrijasotzailea eta Arkupe dantza taldea.

18:00etan: Erromeria Triki-Jazband bi-kotearekin.

Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Jose txo Zeberio beasaindarra atxiloturik

Apirilaren 4an, Frantziako Poliziak, Nafarroa Behereko Eiheralarre herrian, Jose txo Zeberio Aierbe beasaindarra atxilotu zuen, ustez, ETAre zen armategian zegoela. Atxiloteta salatze ko mobilizazioak izan ziren Beasainen.

Jon Chaves gaztearen heriotza

Trenak autoa harrapatu zuenean beste bost lagunekin batera hil zen 19 urteko Jon Chaves beasaindarra, Salamancan, Aste Santuan. Hileta elizkizun jendetsua egin zen apirilaren 12an, Beasaingo Andre Mari Zeruratuaren parro kian. Beste beasaindar bat ere, 19 urteko Angel Garrido, larri zauritu zen istripu horretan.

'Mendiz mendi AHTrik ez!'

Apirilaren 8tik 11ra bitartean, 'Mendiz mendi AHTrik ez!' mendi ibilaldia burutu zen, Ezkio-Itsasotik Adunara. Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak kalteturiko zenbait ingurutan ekitaldiak egin zitu en AHTren aurkako asanbladak.



20.000 gazte Itsasondon

Apirilaren 9tik 12ra Itsasondon ospatu zen Gazte Topagunea 2004 arrakastatsua izan zen. Antolataileek emandako datuen arabera, 20.000tik gora gazte hurbildu ziren Itsasondora. "Zenbaketa osoa egiteke dugu, baina 20.000 gazteren bueltan izan dira hemen. Garaipen bat izan da Itsasondokoa gure ustez, euskal gazteriak antolakuntzarako duen gaitasuna erakutsi duelako eta urtez urte helburu berriak jarri eta betetzen ari garelako", diote Gazte Topaguneakoek. Eguraldia izan zen egunotako protagonista, euria eta hotza izan baitziren. "Hainbeste jende hemen biltzea, egin duen eguraldiarekin, garaipen itzela izan da. Lau egunotan denok eurtartu gara eta Itsasondo gazte herria, gazte herri askea bilakatzea lortu dugu", gaineratu dute.

5.000 lagunentzako prestatutako akanpalekua txiki gelditu zen eta inguruko herrietako txokoetan ikus zitezkeen kanpin dendak. Argazkian ikus daitekeen bezala, Aramako pilotalekua babesleku hartu zutenak ere izan ziren. Beste bitxikeria bat ere bai: Murumendi magaleko kobazulo batean babes a aurkitu duten hamar lagun ere izan omen dira.

Gazte Topagunea amaitutakoan, aste guztian zehar, herria txukuntzen aritu ziren hainbat eta hainbat gazte Itsasondon.

PROMOZIO BERRIA SEGURAN

ESTRUCTURAS GARAIZ S.L.k ERAIKITZEN DITU

12 apartamentu

8 etxebizitza duplex

19 garaje

4 lokal edo garaje

Lehen mailako eraikuntza prezio onenean

Informazioa eta salmenta:

943 85 73 54



Agenda 21eko logotipoa, Josetxo Sastrerena

Tokiko Agenda 21, Goierriko herritarren artean identifika eta sinboliza dadin, logotipo lehiaketa antolatu zen. Josetxo Sastrerena logotipoa izan da irabazlea. 101 logotipo aurkeztu dira lehiaketara eta Goiekiko Administrazio Kontseiluak hartu du erabakia, Sastrek aurkeztutako "logotipoa, garbia, sinplea eta lema-aren esanahai ondo beregatzeko duelako". 600 euroko saria jaso zuen Josetxo Sastrek, martxoaren 31n Goiekin egindako sari banaketan.

Goierri 21 Bodensee eskualdean

Goiekik bultzaturik Goierriko Udaltalde 21ean parte hartzen duten hainbat udal eta elkarten ordezkariak osatutako taldeak bidaia egin zuen martxoaren 23tik 27ra bitartean Austria, Suitza eta Alemaniako mugetan dagoen Bodensee eskualdera.

Goiekik, Garapen Iraunkorrek erlazioatutako Leonar- do proiektu europar batetan parte hartzen du eta proiektu honen barnean esperientzien trukaketa bat egitea proposatu zen Agenda 21aren inguruan. Honela, aipatutako hiru herrialde horietako alkate batzuegandik beraien esperientzia ezagutzeko gonbidapena jaso zuten Goiekin.

Goiekiri interesgarria iruditu zitzaion horrelako bidaia egi- tea, Goierriin Agenda 21 prozesua lehen urratsetan dagoenez, haserako helburu nagusien artean beste esperientzia bat- zuek ikusteaz gain, udal ordezkariak motibatzea baitzen, Agenda 21 prozesua honi ilusio haundiz ekiteko.

Bidaian guztira 21 pertsonen parte hartu dute: alkateak, zi- negotziak, udal teknikariak eta Udaltaldean parte hartzen duten eskualdeko elkarten ordezkariak (Goieki, Goimen eta Sasie- ta).

Egun gutxitan gauza asko ikusi dituzte: herri desberdinetako Agenda 21 prozesuak (herri txiki eta handietan), elkarlan proiektuak, ur depuradora bat, museoak, instalazio turistikoak, artisautza, gaztandegi bat, e.a. Gauza asko denbora gutxian...

Goieki esperientzia honen ondorioak azalduko dituen txos- tena prestatzen ari da bidaian parte hartu duten pertsona guztiei bidali eta beraien ekarpenak jasotzeko asmoz.



Idiazabal Gazta berria

Apirilaren 14an, Idiazabal Gazta berriaren denboraldia ireki zen ofizialki, Ordizian. Andoni Luis Aduriz sukaldari gazteak izan zuen ardura. Gaztak, "udaberri usai- na" zuela adierazi zuen. Artzantzari eskainitako azoka berezian, 2003ko gaztaren erregulartasunaren sariak ere banatu ziren. 3 nafar izan ziren sarituak: Ricardo Remi- ro, Luis Vicente Larrate eta Dorrea gaztandegia. Udale- txeko ekitaldian, Idiazabal Gaztarekin zerikusi zuzena duen Luis Herrero madrildarra omendu zuten.

Aharia ere protagonista izan ziren. Hainbat sari ba- natu ziren: Itsasondoko Jose Manuel Otegi, Zeraingo Inazio Zabalo, Beasaingo Juan Jose Urdangarin, Idiaza- balgo Luis Katarain, Gabiriako Amelia Jauregi eta Idiaz- balago Victoriano Urrestarazu izan ziren sarituetariko batzuk.



Estatu Batuetako eta Kanadako sukaldariak Goierriin

Apirilaren 20an, Estatu Batuetako eta Kanadako 700 goi mailako sukaldari biltzen dituen Dirona elkarteko orde- zkaritza bat Goierriin izan zen, Idiazabal Gazta ezagutzen, Estatu Espainiarrean eta Portugalen egin zuten biraren barruan. Idiazabalen harrera egin zitzaion.

Kontseiluaren Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa kanpainar:

Hizkuntza eskubideen aldeko konpromisoa hartu dute ordiziar ezagunek

Apirilaren 19an Barrena Kultur etxean egin zen aurkezpenak eman zion hasiera ekaina bitartean gauzatuko den 'Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa' kanpainari. Aurkezpenean, hizkuntza eskubideen eta euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartu dituzten 50 bat ordiziar esanguratsu bildu ziren, herriko Euskalgintzak luzatutako deiarri erantzunez.

1988an, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren, Hitzaroren eta Udalaren elkarlanari esker, Bai Euskarari Akordioa sinatu zuten Ordiziako ia 100 gizarte-eragilek, eta geroztik, horietako 50ek euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten eta beste seik Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten. Orain, berriaz, herritarrei edo norbanakoei zuzendu nahi izan zaie Kontseilua 'Hizkuntza Eskubideak! Denon konpromisoa' ekimenarekin, "euskararen normalizazio prozesuan guztiok garelako beharrezko, inor ez dagoelako soberan".

Konpromisoak

Hizkuntza eskubideen eta euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartzea eta areagotzea du helburu Kontseiluaren ekimen berriak, eta bi epe edo fase ditu. Lehenengoan, herritar esanguratsuen jo da, herrian nolabaiteko 'ospea edo prestigioa' dutenengana. "Badakigu dagoneko pertsona askok hartzen dituztela euskararen konpromisoak egunero euskararen alde. Baina horiek ere izango dute zer hartua. izan ere, orain egiten dugunaz gain, oraindik ere gehiago egin dezakegu", argudiatu dute. 29 konpromisoko zerrenda osatu du Kontseiluak. Eguneroko bizimoduarekin, hezkuntzarekin, euskal kulturarekin, lan esparruarekin eta Administrazio publikoarekin zerikusia duten konpromisoak dira, eta euskaldunei eta erdaldunei zuzenduta daude, konpromisoetako batzuk erdaldunek hartzeko modukoak izan daitezten saiatu baitira Kontseilukoak. Zerrendatutako konpromiso horien artetik banakakoek adierazi beharko dute dagoeneko zer konpromiso betetzen dituzten eta zer konpromiso betetzeko prest dauden. Kontseiluaren asmoa da, "konpromisoen emaitzak kudeatzea", hots, nolabaiteko maiztasunez aztertu ahal iza-



hizkuntza eskubideak
denon konpromisoa
erabakiak hartzen dituen konpromisoa da hizkuntza eta jarduera

KONTSEILUA


tea konpromiso horiek betetzeko bidean jendeak zer-nolako oztopoak topatu dituen, ondoren horiek aztertzeko eta konponbideak aurkitzen saiatzeko. (Konpromiso zerrenda ondoko koadroan duzue).

Bultzatzaileak


Ordiziar esanguratsuek emandako erantzunarekin pozik dago Ordiziako Euskal-

gintza, guztira 70 ek egin baitute bat ekimenarekin --horien izenak ondoko taulan dituzue--. Barrenako aurkezpenaren ondoren, herritar guztiengana zabalduko da konpromisoen eskaera. Hala nahi duten herritarrek, nork bere neurriko konpromisoak hartzeko aukera izango du. Horretarako, ekaina bitarteko ostegunetan (18:30etatik 20:30etara) eta larunbatetan (11:00etatik 13:00etara) Barrenan jarriko diren mahaietara gerturatu besterik ez du, han aurkituko baititu Kontseiluaren diptikoak. Goierriin, momentuz behintzat, beste inongo herrik ez du bat egin kanpainarekin, eta horien eta Kontseiluaren arteko zubi lanean aritzeko prest legoke Hitzaro beste herrietatik laguntza eskaera jasoko balu.

Urtea hastearekin batera galdetu zion Kontseiluak Hitzarori ea Ordiziako Euskalgintzak bat egingo zuen 'Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa' kanpainarekin. Hitzarok deituta, lau bilera egin dituzte Ordiziako Euskalgintzako erakundeek, eta guztien artean gaia aztertu ondoren, bost elkartek erabaki dute kanpainarekin bat egitea: Hitzarok, Jakintza ikastolak, Goierri Lanbide Eskolak, AEK-k eta Ordiziarrek Gera Plataformak.



SASIETA MANKOMUNITATEA
www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55



Herritar ezagunen konpromisoak

Euskararen aldeko konpromisoa hartu duten ordiziarren zerrenda duzue segidan: Julen Agirre, M^a Asun Alonso, Antton Amundarain, Erramun Amundarain, Norma Andrade, M^a Jesus Aranburu, Gema Arrugaeta, Joseba Aitor Asurmendi, Joxi Azurmendi, Nekane Azurmendi, Joxe M^a Barandiaran, Aitor Calvillo, Mirian Calvo, Javi Carrizo, Ana Diez, Patxi Epelde, Juan Vicente Erauskin, Andoni Eski-sabel, Mikel Etxarri, Ainhitze Etxeberria, Beatriz Ezeiza, Marisa Galdeano, Iñaki Gal-



parsoro, Iker Galparsoro, Faustino Garmendia, Juan Mari Garmendia, Gorka Garmendia, Juan Mari Goenaga, Maite Goñi, Jose Luis Gonzalez Katarain, Manuel Gorospe, Iñaki Hidalgo, Edurne Huesa, Trini Imaz Sorozabal, Jose Antonio Insausti, Maite Irastorza, M^a Pilar Irastorza, Eusebio Iziar, Mikele Iztueta, Jose M^a Jauregi, M^a Jesus Lapizondo, Mikel Leunda, Arrate Leunda, Maite Lizaso, Belen Maiza, Pablo Markiegi, Fermin Mendia, Ignacio Mendiguren, Xanti Mendizabal, Lurdes Mujika, Bixen Mujika, Blanca Mujika, Ana Oiarbide, Mikel Oiartzabal, Manu Olano, Nekane Otaegi, Peio Otegi, Manolo Otegi, M^a Jose Otegi, Nuria Perez, Enrique Redondo, Antton Regil, Xabier Sabino, Jose Luis Sukia Buselo, Jon Urdangarin, Aitor Urreta, Patxi Usabiaga, Blas Usabiaga, M^a Carmen Yeboles, Fede Zabala eta Agus Zinkunegi.

Proposatutako 29 konpromisoak

Hizkuntza eskubideen eta euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartzea eta areagotzea du helburu Kontseiluaren ekimenak. Euskaldunei eta erdaldunei zuzenduta dago, euskararen normalizazio bidean guztion parte hartzea beharrezkoa ikusten baitu Kontseiluak. Honela, konpromisoetako batzuk erdaldunek hartzeko modukoak izan daitezten saiatu dira Kontseilukoak. Hona, zerrenda.

- 1.- Euskara ikasiko dut.
- 2.- Euskara erabiliko dut.
- 3.- Nire euskara maila hobetu egingo dut.
- 4.- Lehen hitza euskaraz egingo dut edozein erakunde, elkarte edo enpresatan. Telefonoz ere lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 5.- Gure etxeko telefonoko entzungailuko lehen hitza euskara izango da.
- 6.- Euskaldun gisa identifikatzen nauen zerbaitek eramango dut.
- 7.- Seme-alabak euskarazko eredueta eskolaratuko ditut.
- 8.- Laguntaldean euskara erabiliko dut eta erabiliaraziko dut.
- 9.- Kide naizen elkarte, talde eta abar guztietan euskararen presentzia bermatuko dut.
- 10.- Nire gustuko ikasketak euskaraz egingo ditut.
- 11.- Azterketak eta lanak euskaraz egingo ditut.
- 12.- Literatura unibertsaleko liburu bat irakurri behar badut euskarazko bertsioa irakurriko dut.
- 13.- Euskaraz egindako euskal produktuak oparituko ditut.

14.- Euskal Kulturaren ekoizpenak eta euskarazko produktuak ez ditut kopiatuko, jatorrizkoak erosiko ditut.

15.- Euskarazko hedabideak erosiko ditut edo gutxienez euskarazko proportzio onargarrian erabiltzen dutenak.

16.- Euskal prentsako harpidetzaren bat egingo dut.

17.- Pelikulak euskaratzen diren kasuetan euskarazko bertsioa hautatuko dut.

18.- Euskarazko zerbitzua ematen duten edo normalizazioan abiatu diren edo Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresak lehenetsiko ditut.

19.- Aseguru-polizak, etxeko administrazioaren aktak eta dokumentuak, gas, argindar eta ur-hornitzaileen kontratu eta agiriak euskaraz jasotzeko eskaria egingo dut.

20.- Saltokietan euskara erabiliko dut.

21.- Aukeran, etiketa euskaraz duten produktuak aukeratuko ditut.

22.- Euskaraz ez dauden agiriak ez ditut sinatuko.

23.- Kontratuak eta nominak euskaraz eskatuko ditut.

24.- Toki ofizialetan nire lehen hitza euskaraz izango da.

25.- Administrazio publikoak eskaintzen dituen zerbitzuetan euskara erabiliko dut.

26.- Justizia administrazioan ez dut itzultzaile onartuko.

27.- Nire inguruan ikusten ditudan hizkuntza eskubideen urraketan berri behatokiari emango diot. (www.behatokia.org edo 902194332).

Gozatzearen zentzuaz

Aurreko batean gure inguruko Parke Natural batean izan ginen hiriko zarata eta keak ordu batzuez bederen ahazteko asmoz. Baina azken urteetan gure Parkeetan ohikoa den moduan ezin izan genuen hiria atzean utzi. Txangoan, mendian gora ginderamatzan pistan motorzaleak izan baikenituen bidaia-lagun, beraiekin zekarten "hiritartasunaz" gu ere kutsatuz. Gero eta ugariagoak dira mendi-pistetan barrena (edo haue-tatik kanpo) topatu daitezkeen ibilgailu motordunak, ingurumenari dakarzkieten kalte-arekin.

Badirudi askotan ez dugula ulertzen zein den Parke Naturalen benetako funtzioa. Ez dira gure nahi, desira edota kutxitara moldatu behar diren atrakzio-parkeak; aitzitik, gu geu gara Parkeen berezitasun eta ñabarduretara moldatu behar garenak. Parkeak babes izaera badute euren balio naturalistiko, paisajistiko, historiko eta kulturalengatik da; eta Parkeei ematen zaien erabilera baliabide natural eta kultural hauen iraupena ziurtatzera doitu behar da. Gure Parkeetan, antzina banaketa zabalagoa zuten landare, animalia eta ekosistemak topa daitezke; hauetariko asko eta asko egun hiri inguruetan galduak daudenak. Gainera garai bateko jarduera tradizionalak ere biltzen dituzte: artzantza eta abeltzantza estensiboa adibidez. Hau guztiarengatik Parkeak gure ondare natural eta kulturalaren erreserbak bilakatu dira.

"Ingurumenarekin gozatzea bakoitzak oso era pertsonalean bizi duen gauza da, baina ezin dugu ahaztu ingurumenarekiko errespetua izan behar dela ardatza"

Ibilgailu motordunekin batetik bestera ibiliz kalte handienak ez ditugu mendizaleok pairatzen ingurumenak baizik: aire-kutsadura eta akustiko, fauna eta ganaduaren uxatzea, inora ez doazen pista berriak, higaduraren emendioa... Ez gara ari esaten mendiko motoak debekatu behar direnik baina bai beharrezkoa dela neurriak hartzea. Kasu batzutan derrigorrezkoak izaten dira moto edo todoterrenoak: artzain, abeltzain edo basozainen lanerako kasu. Baina erabat beharrezkoak ez diren ibilgailu motordunak ekidin behar dira, gure Parke Naturalak ezin dira autopista bihurtu. Baditugu nahikoa errepide gure etxe aldamenetan. Ez da zilegi Parke Naturalen bihotzera ere hiriko ke eta zaratak eramatea. Motorzaleen moduko jarduerak bilduko litzuzkeen eremuak mugatu beharko lirateke baina beti ere kontserbazioaren aldetik interes berezirik ez duten inguruetan. Egia baita motorzaleek askotan aipatzen duten arazoa dela beraien ihardunerako ez dutela alternatiba aproposik.

Ingurumenarekin gozatzea bakoitzak oso era pertsonalean bizi duen gauza da, baina ezin dugu ahaztu ingurumenarekiko errespetua izan behar dela ardatza. Ezin dugu pentsatu Parkeak "guretzako" eginak daudenik; eta mendira goazen bakoitzean hori kontuan izan behar dugu. Baliabide naturalak ez dira gure jabetza pertsonak, ezin ditugu edozein modutara erabili, ez dira amaierarik gabekoak... Hauen iraupena bermatu nahi bada ingurumenaren bilakera naturala eta jasangarritasuna ahalbidetuko duten jarrera eta ekimenak jarri behar dira martxan. Ulertu beharra dugu "Parkeekin" gozatu behar dela eta ez "Parkeez".

Mendira joaten garenean ingurumenak eskaintzen digun bakea eta airea garbia bilatu ohi ditugu; gure herri eta hirietan gero eta urriagoak diren baliabideak alegia. Baina batzutan badirudi hiriguneak "naturalizatu" baino nahiago izaten dugula ingurune naturalak "hiritartu". Denon eginbeharra da hau ekiditea, gure ekimenekin ingurumena zaindu eta errespetatuz.

Larraitx Garmendia eta Joseba Garmendia

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Eurosolar Saria Energiaren Euskal Erakunde-arentzat:** Energiaren Euskal Erakundeak Eurosolar saria jaso du ikastetxeetan eguzki panelak instalatzeko proiektuarengatik. Proiektu horren arabera, 2004 urtea bukatzerako, hezkuntza-sarean dauden 170 ikastetxek 5.000 kwh-ko potentzia sortuko dute eguzki-panelen bidez. Instalazio horiekin, EAEn orain arte baino hiru aldiz eguzki-energia gehiago ekoiztuko da.

✓ **Pestizidak fruitu eta barazkietan:** Eusko Jaur-laritzako Osasun Sailak, EA-En kontsumitzen diren fruitu eta barazkiak ikertu ditu, eta emaitzen arabera produktu kimiko gehiegi aurkitu dira aztertutako aleetan.

✓ **Bertako landare askok beren ugalketa estrategian ezinbesteko dute zenbait insekturen bitartekaritza.** Lore batetik bestera, haizeak eraman ezin ditzakeen polen aleak garraiartzen dituzte intsektu hauek. Landere hauek polinizazio gurutzatu entomofiloa dutela esaten da. Entomofauna honetan, lan hori egingo duten intsektu ugari badago ere, guztira 16.000 - 20.000 espezie mundu guztian, %80 bat erleen esku edo ardurara geratzen da. Beraiek dira hainbat fruitu eta hazi sortzearen arrazoi edo giltzarria.

✓ **Ibert Heinstein zientzi-lariaren hitzetan** "Erlerik gabeko munduak, soilik 10 urteko bizia luke".

Ondo pasa Lazkaoko festak!

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

Areso, 6 ☎ 943 88 77 40



ANSOATEGI HERRIKOA



*Jaietan ere
falta direnak
gogoan*

Elosegi, 15 ☎ 943 88 68 52

GERRIKO TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 16 ☎ 943 88 99 43

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

GURUTZE 1



OROBIONE
2002

TABERNA

Pintxoak
Eguneroko menua
Razioak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

Goizeko 7etatik zabalik
Elosegi, 34 LAZKAO



ERLO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

943 880 233 / Elosegi, 17

*Jai zoriontsuak
denoi!*



TABERNA

Uhaitz, 2 LAZKAO

KIROLDEGI TABERNA

Eguneroko menua

Pintxoak Bokatak

Festetako gazte giroa

☎ 943 16 19 66

ITZALA TABERNA

Tfnoa.: 943 88 25 28

Jose Lasa, 1

LAZKAO

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 5 ☎ 943 88 20 29


LAZKAON EGINDAKO GAZTA

Ixidro Sukia

659 043 773

Bordaberri Artegia

LAZKAO



**SAN BENITO
IKASTOLA**



PARTAIDE
Ikastolak



ESKAINTEA

- ✎ D ereduko ikastetxea eta eleanitza
- ✎ Hezkuntza integrala
- ✎ 0-18 urte bitarteko hezkuntza (HH, LH, DBH, Batxilergoa)
- ✎ Formakuntza akademiko eta giza heziketa sendoa, orientazio eta tutoritzan oinarrituta

ZERBITZUAK

- ✓ Jantokia
- ✓ Ludoteka
- ✓ Hizkuntza Eskola
- ✓ Trinity College London
- ✓ Antzerki tailera
- ✓ Guraso eskola

- ✓ Garraioa
- ✓ Kanguroak
- ✓ Ingeles udalekuak
- ✓ Musika eta Trikitixa eskola
- ✓ Abesbatzak
- ✓ Kirolak

BATXILERGOAK: Zientifiko-teknikoa
Osasun zientziak
Humanitateak
Gizarte zientziak

Euskadi enparantza z/g

20210 LAZKAO

www.sanbenitoikastola.com

e-mail: lazkao@ikastola.net

telefonoa: 943880800

Errenta aitopenaren garaia hastear dago. Zuentzako garairik onena izango da, baina bezeroentzat burukomina.

Burukomina, handiena guretzat! Askotan errenta aitopenak egitea baino lan gehiago baita bezeroak dokumentu guztiak zuzen ekartzea... jaleo handiko asteak izaten dira hauek.

Gutxiago ordaintzeko trikimailuak zeintzuk dira?

Geroz eta gutxiago. Gure datu guztiak dauzkate Haziendan.

Bezeroen kezkarik handienak zeintzuk izaten dira?

Ahal den gutxiena ordaintzea.

Zure lanean zer duzu gustukoena?

Gauzak ondo ateratzen direnean, dena.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Paperak ordenatzea.

Abokatuak psikologo lana ere egin behar izaten du.

Egia da, badago bere bizi oso kontatzen dizun jendea... baina entzunaz ere asko ikasten da.

Ama izateak lanean baldintzatzen al du?

Noski. Amatasunaren gaia infrabalaratua dago, laguntza gehiago beharko genituzke gure haurrak hazi eta hezteko.

Lazkaoko jaietarako tarterik izaten al duzu?

Horretarako beti hartu behar da tarte.

Festetarako plan bat:

Egun osoa kalean... gora eta behera. Gauez lo! Ze erremedio... hala ere egingo dugu eskapadaxtoren bat.

Zer gehituko zenieke Lazkaoko jaiiei?

Eguraldi ona.

Lazkaoko jaien famaren sekretua zein izan liteke?

Lazkaotarrak.

Zerk kentzen dizu loa?

Gauza gehiegik, lo arina daukat.

Amets bat:

Askatasuna.

Azkena irakurri duzun liburua?

'Duérmete,, niño', badaezpada ere.

Musika mota bat:

Denetik, momentuaren arabera.



Irantzu Amundarain

(Zuzenki aholkularitza)

Zunzunegi
Oinetakoak
Jai zoriontsuak denoi!
Hirigoien, 8A
943 087 913
LAZKAO

BURDINDEGIA
GVREA
Madalena, 2 Tfnoa.: 943 88 19 95 LAZKAO
HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

AMEBI
Sagardotegia
Sanprointzioak ondo pasa!
Apirilak 24, larunbat gaua eta
apirilak 30, ostiral eguerdia
trikitilariekin alaituak.
943 16 25 23
Zubierreka,9 LAZKAO

Oilategia
Atxa
Arrautza jarriberri ezin hobeak
943 16 09 71 Elosegi, 25
LAZKAO

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

GOKINDEGIA GARONA
K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
943 88 77 58 943 88 72 79 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

San Prudentzio jaiak Lazkaon

Apirilak 23, ostirala:

16:00etan: Xakea haurren-tzat Plazan.

17:00etan: Barraken inaugurazioa eta Sorianotar barrake-roei esker agergarria ematea, 50. urtez Lazkaora etortzen direlako.

19:00etan: Herriko jaiari hasiera emateko Udaletxetik su-ziria eta erraldoi eta Antzar Gazteak txarangaren irteera.

20:00etan: Imuntzo eta Beloki trikitilarien diskoaren aurkezpena Gerriko liburudendan.

22:30ean: Profesionalen esku pilotako partidua kiroldegian. Goñi II - Pascual / Martinez de Irujo - Goñi III.

23:00etan: Imuntzo eta Beloki trikitilarietako erromeria (tabernarietako antolatuta).

Apirilak 24, larunbata:

09:00etan: Artisau eta barazki azoka.

11:00etan: Neska kadeteen areto futbol partidua, kiroldegian: San Benito - Axular.

11:00etan: Areto Formulako rallia, egun osoan San Benito ikastolan.

12:00etan: Kiki, Koko eta

Moko pailazoak Plazan.

16:00etan: Pelota eskolako haurren erakustaldia.

18:30ean: Dantza jaialdia: Berako Gure Txokoa eta Lazkaoko Oin Arin.

20:00etan: San Benito ikastetxeko Xanbe abesbatzaren emanaldia, parrokan.

20:00etan: Mozorrotuen elkarketa, Txatunga Benbe perkusio taldearekin.

23:00etan: Drindots musika taldearen emanaldia.

Apirilak 25, igandea:

12:00etan: Gorriti bere abereekin.

12:30ean: Trikuak txaranga herrian zehar.

18:30ean: Lazkaoko ikasleen danborrada.

20:00etan: Trikuak txarangaren animazioa herrian zehar.

Apirilak 27, asteartea:

17:00etan: 3-10 urte bitarteko haurrentzako jokoak. San Benitoko ikasleek antolatuta.

17:30ean: Kaleko saskibaloia.

18:00etan: Bezpera elizkizunak San Prudentzio ermitan.

18:30ean: Play Back Plazan.



20:00etan: Luhartz musika taldearen emanaldia.

Apirilak 28, asteazkena:

09:00etan: Txistulariekin goiz eresia.

10:30ean: Prozesioa San Prudentzio ermitara txistulari eta dantzarietako.

11:00etan: Prudentzio Deunaren ermitan Meza Nagusia, ondoren Oin Aringo dantzariak mutil dantza dantzatuko dute Udal korporazioaren aurrean.

13:00etan: Udal karguen sokadantza.

13:30ean: Koldo trikitixa eskolako ikasleen emanaldia.

17:30ean: Oin Arin dantza taldearen emanaldia.

18:30ean: Herri Kirolak. Aizkolariak: Mindegia, Arrospide, Ugaitz eta Aratz. Harrijasotzaileak: Ostolaza, Iñaki eta Iñaxio Perurena.

19:30ean: Laguntasuna Rondallaren emanaldia.

Apirilak 29, osteguna:

11:00etan: Haurrentzako parkea.

19:00etan: Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

19:30ean: XV. sardina jana Plazan.

20:00etan: Egan taldearen emanaldia plazan.

Apirilak 30, ostirala:

12:30ean: Koadrilen bilkura,

UNAI
ARRANDEGIA



Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4
LAZKAO

☎ 943 88 79 33

AMAREN EGUNEAN,
MAIATZAK 2,
GOIZEAN ZARALIK

EGYZKI-LORE

Jai zoriontsuak!

☎ 943 88 49 65
Jose Lasa, 9 **LAZKAO**

ARRIARAN
MERTZERIA

Haurren jantziak

Hirigoien, 12
☎ 943 16 06 82 **LAZKAO**



Atzondo
roztegia, S.L.

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

☎ 943 16 09 31 **LAZKAO**

LAZKAO berogailuak

Jai zoriontsuak denoi

ITURGINTZA - GASA

Pedro Berano Salcedo

☎ 943 883 158 - 610 214 153 ☎
Hirigoien, 34 **LAZKAO**

DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkiezue!!

Hirigoien, 16
☎ 943 88 58 95 **LAZKAO**



Incansables txarangarekin.

13:00etan: Koadrilen arteko txerri harrapaketa, Lazkaoko gazteek antolatuta.

18:00etan: Koadrilen kalejira Incansables txarangarekin.

17:30etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoak.

23:00etan: Betagarri eta Kauta taldeen emanaldia.

12:00etan: Gomasalto, San Jose auzoan.

Maitzak 1, larunbata:

09:30ean: Lazkao LXI. Txirrindulari proba.

10:30ean: Jubilatuen ibilaldi neurtua.

10:30ean: Eskualdeko XII igeri-lehiaketa, Kiroldegian.

12:00ean: XVI. bakailao lehiaketa.

12:30ean: Sama Siku fanfarrearen emanaldia.

13:30ean: Karreraren amaie-

Lazkaomendiko jaiak

Maitzak 8, larunbata:

09:00etan: Ibilaldi neurtua.

11:30etan eta 15:30etan: Plater hausketa.

16:00etan: XXVIII Lazkaomendiko txirrindulari proba.

16:30etan: Haur antzerkia: Kixka taldea.

23:00etan: Tapia eta Leturia trikitilarien emanaldia.

Maitzak 9, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia, San Juan Ante Portam Latinan ermitan. Udal korporazioa bertan izango da.

12:00etan: Haur jokoak

13:00etan: Mendizabal eta Zeberio bertsolarien saioa, txiste saioa, ondoren Epelde eta Larrañaga trikitilariak.

17:15ean: Herri kirolak. Aizkolariak: Larretxea eta Nazabal. Harrijasotzailea: Iñaki eta Iñazio Perurena. Asto karrera.

18:30ean: Bertsolarien eta txiste kontalarien bigarren saioa.

19:00etan: Epelde eta Larrañaga trikitilarien saioa.

ra. Sama Siku fanfarreak alaituta.

16:00etan: Toka lehiaketa.

18:30etan: XXIV. Dantza libreko txapelketa plazan.

19:00etan: Sama Siku fanfarrea herrian zehar.

23:00etan: Paco Formoso eta bere mariatxia.

Optika Mikel
OPTIKARI OPTOMETRISTA DIPLOMADUNA
UKIPEN LENTEEN EGOKIERA
Hirigoien, 7 ☎ 943 88 09 35
LAZKAO

Urna
ZORU KONPONKETAK
Zoruen lijatzea eta barnizatzea
☎ 943 88 17 45 ☎ 943 16 20 98 ☎ 615 79 79 67
Erakusketa: Hirigoien 36 **LAZKAO**

Garin
OKINDEGIA
Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5
☎ 943 16 23 36 ☎ 943 88 04 33
LAZKAO | ORDIZIA

ANDERE
USA INDEGIA
- Depilazioak
- Solarium-a
Gurutze, 3
☎ 943 88 30 02 **LAZKAO**

OSAKI
* Sendabelarrak
* Naturopata
* Masajista
Ana Mari Egea
Mikelar, 1 ☎ 943 88 93 62 **LAZKAO**

ILEAPAINDEGIA
Ornaxi
Jai zoriontsuak denoi
Hirigoien, 12 ☎ 943 88 92 41
LAZKAO

GASTEIZ
ILEAPAINDEGIA
Festa onak pasa!!!
Hirigoien, 24
☎ 94388 05 83 **LAZKAO**

ITXURRENE taberna
Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...
☎ 943 885759 **LAZKAOMENDI**

PELLO BIDE GAIN
HARATEGIAK
Jai zoriontsuak opa dizkizue
☎ 943 88 93 57
Mikelar, 1 **LAZKAO**

50 urtez etorri dira Lazkaora, Sanprudentziotan Sorianotarren auto-txokeak

Sorianotarrak izaten dira Lazkaon, Sanprudentzio jaia iragartzen dituztenak, apirilaren erdialderako etortzen baitira. Aurten, 50. urtea dute Lazkaora etorri direla. Herriko haur gehienak, oraingoak eta lehengoak, Sorianoren auto-txokeetan ibilitakoak izango dira. 50. urteurrena dela eta, Udalak omenalditxo bat eskainiko die, Sanprudentziotan ezinbestekoak bihurtu diren Sorianotarrei.

Enrique Soriano duela 50 urte etorri zen lehenengo aldiz Lazkaora. Gaur egun, semea, Jose Antonio etortzen da. 50 urte ditu Jose Antonio Sorianok, "Lazkaon, kasualitatez ez nintzen jaio, apirilaren hasieran jaioa bainaz, Zaragozan", esan digu. Bi urtetan gelditu dira Lazkaora etorri gabe. "Soldadutza egin



Jose Antonio Soriano, auto-txokeetan.

nuen urtean eta eta udalarekin ekonomikoki konpondu ez ginen beste urte batean". Hiru seme izan zituen Enriquek eta hiruek ere barraken munduan jarraitzen dute, bakoitzak bere aldetik. Jose Antoniok, auto-txokeen bidetik jarraitu du.

Aita valentziarra izaki, Lazkaora nolatan iritsi zen galdetu diogu Jose Antoniori: "Valentzian erosi zuen auto-txokeen pista eta negozioak berak bideratzen du. Donos-

tia aldean, pista gutxi ikusten zirela eta, Lazkaora iritsi zen".

Nobedade izugarria izan zen Lazkaon duela 50 urte. "Jendeak esku zabalik hartzen gintuen. Festa izaten zen haurrentzat gu Lazkaora etortzen ginenean. Haur guztiak inguratu eta hemen ibiltzen ziren, nola muntatzen genuen ikusten. Gaur egun, ez dago horrelakorik. Asko aldatu da. Dibertsio forma ezberdinak daude gaur egun".

Hainbeste urtetan, belau-naldi ezberdinen jolasleku izan dira Sorianotarren auto-txokeak. "Garai bateko haurrak orain beraien haurrekin etortzen dira".

Aldaketak

Hainbeste urtean, aldaketa ugari ezagutu dituzte bai auto-txokeek eta bai bizimoduak berak ere.

Auto-txokeei dagokionean, 50 urtean lau-bost aldaketa nagusi egin omen dituzte. "Autoa garai batean dena burdinezkoa zen, oso pisua. Gaur egun arinagoa eta erosoagoa da, lehengoan aulkiak egurrezkoak baitziren". Golpeak ere aldatu dira. "Gaur egun arrisku gutxiago dute, nahiz eta abiadura handiagotan ibili babestuagoa dagoe-lako autoa. Garai batean, hortz asko puskatu zituzten haurrek. Lehen burdinezkoak ziren bolanteak".

Pista muntatzeko ere aurrerapenak iritsi dira. "Lehen torloju asko lotu behar izaten zituzten pista muntatzeko. 22



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



kutxa

gizarte ekintza

zutabe zituen pistak. 17 metro luzera eta 11 metro zabalera-ko pista izaten zen eta astebe-te behar izaten zen munta-tzen. Gaur egun, egun eta er-dian muntatzen da. 24 x 13eko pista da gaur egungoa. Handiagoak ere badaude baina gertatzen da herri as-kotan ez dagoela hain han-dia muntatzeko lekurik", dio Jose Antonio Soriano.

Prezioak ere, jakina, asko aldatu dira. Fitxa bakoitzeko pezeta eta erdian saltzen zi-tuzten garaia gogoan du Jose Antoniok. Aurten, euro bat kobratuko da aurreko bi urte-etan bezala. "Udalak ez digu lekurik kobratzen da eta pre-zioa mantendu ahal dezake-gu, haurrek gozatu dezaten. Aurrekontu handia da hau-rrekin barraketara joatea. Gurasoek itsulapikoa deitzen digute", adierazi digu.

Festak beti izan dira jende-aren arteko harremanak sor-tzeko momentua eta lekua. Auto-txokeak ere harreman leku garrantzitsuak izan dira. "Ligatzeko lekua ere beti izan dira auto txokeak. Garai batean asko ligatzen zen. Bi-



Jose Antonio Soriano: "Umeen gurasoek itsulapikoa deitzen digute"

kote asko sortu dira auto-txo-keetan".

Bitxikeriak

Hainbeste urtean gora-behera bat baino gehiago ezagutu izan dute Lazkao Sorianota-rrek. Bitxikeriak ere bai. Bat gogoratu du Jose Antoniok: "Urte batean, manifestazio oso gogor bat izan zen eta auto-txokeak hurrez bete zi-ren. Herri guztia mendi alde-

ra joan zen korrika. 1968. ur-te ingurua izango zen".

Autorik azkarrenaren in-guruan ere bitxikeria gerta-tzen zaio Jose Antonio Soria-nori. "Oraindik ulertu ez du-dan arazoa da hori. Herri ba-tean auto bat azkarragoa iza-ten da eta beste batean beste bat. Ez dakit zergatik den ho-ri, ez dut erantzunik lortu. Haurrek berehala jakiten du-te zein den bizkorrena".

Barrakeroen bizitza

Karabanan bizi dira Soriano-tarrak festa denboraldia has-ten denean. Sanprudentzio-tan, Lazkao, hasten dute denboraldia. "Gero geldial-dia izaten dugu, festarik ez da izaten eta. Festak banatu be-harra dago, koordinatuta gaude. Bestela ez legoke bi-zi-zerik. Euskadiko, Nafarroa-ko eta Valentziako elkarteeta-ko bazkide gara. Euskal He-rrian, Martutenen bukatzen du denboraldia. Handik Va-lentziara joaten gara Fallak arte irauten dugu".

Bizimodu honi esker, jen-de eta toki ugari ezagutu izan dituzte Sorianotarrek. Lazkao asko aldatu dela dio, "onera-ko". Txindoki mendia zapal-du dute, adibidez.

San Prudentzio jaien ha-sieran, apirilaren 23an, ome-naldia jasoko du Jose Anto-nio Soriano, udalaren esku-tik. Soriano berak ere, he-rriari bere esker ona azaltze-ko, Lazkao festetan izaten den txirrindulari afizionatuen lasterketan sari bat ematen du urtero.

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

50 urte **Iñaki Izagirre sukaldari lazkaotarra:**

"Munduan, urte guztian, nazkatu gabe, jaten ematen duen sukaldari bakarra dago: ama"

Ibilbide luzea egina du Lazkaoko Iñaki Izagirre sukaldariak han eta hemengo sukaldeetan, ikasten eta erakusten. Atzerrian urte asko egin ondoren, 1997az geroztik etxera itzuli da, Iruna, Labekoetxe eta Ficobako jatetxeen ardura dauka. Berdelaren aldeko kanpainan ere ikusi dugu azkenaldian Iñaki Izagirre.

17 urte zituela utzi zuen Lazkaoko Enparan baserria. Euskal Herriatik mundura, herrialde ezberdin ugari ezagutu ditu lazkaotarrak unibertsalak. 1997an itzuli zen berriz ere bere sustraletara. Hori bai, Izagirrek aitortu digunez, "baserritik eta Euskal Herriatik atera nintzen baina baserria eta Euskal Herria nire barnean geratu ziren". Iruna itzuli da. Labekoetxe XVII. mendeko baserria egokitu eta jatetxea jarri zuen 1997an, Irungo Olaberria auzoan. Orain, beste apustu bat ere egin berria du: Irunen bertan, Ficobako jatetxearen ardura ere bera gain hartu baitu.

Urte hautetan guztietan izen handia hartu du Izagirrek eta sari garrantzitsu ugari jaso ditu.



Iñaki Izagirrek Irungo Ficoba erakustazokako jatetxearen zuzendaritza hartu du. Eskuzabalik hartu gintuen lazkaotarrak.

Sukaldaritzak munduan nola sartu zinen?

9 urte neuzkala, baserritik Legazpira joan nintzen. Garai hartan Patricio Etcheberria enpresa puri-purian zegoen eta osaba batek jatetxea zeukan. Han hiruzpalau urte pasatu nituen. Gero CAFeko eskolan aritu nintzen. Handik Nautika ikastera joan nintzen Bilbora. Itsasoan ibiltzen hasi nintzen baina bizimodu hura ez zitzaidan gustatzen. Orduan, nire sustraletara joan nintzen, sukaldaritzara. Ipar Amerikan, Ingalaterran, Holandan, Alemanian, Belgikan, Ibizan, Iruñan, Sevillan eta Madrilan ibili naiz Euskal Herrira itzuli aurretik.

Madrilan zeundela eman zizuten 'Gastronomiako Sari Nazionala'.

Esan liteke gauza garrantzitsuenak Madrilan gertatu zaizkidala. Uzta orduan hasi nintzen jasotzen. Jaun de Alzate Jatetxean egon nintzen. Sukaldari onenaren Sari Nazionala 1988an jaso nuen. Sari horri esker, munduan zehar jende ospetsu ugari eman diet jaten. Beverly Hillsen, Los Angelesen... Sari Nazionala jaso nuenez, Espainiaren ordezkari bezala leku askotan ibili nintzen.

Beti euskal sukaldaritzak izan al duzu oinarri?

Bi fase ezberdin izan ditudala esango nuke. Hasieran, ikas-

Saritua

1988. urtean Gastronomiako 'Marques de Villena' Sari Nazionala jaso zuen. Urte askotan Madrilgo abangoardia eta bertako kultura-munduen erreferentzia eta topagune izandako Juan de Alzate jatetxeko sukaldariburu eta zuzendari izan zen. 1992. urtean Europako batasunaren sukaldari ordezkaria izan zen Sevillako Erakusketa pabilioian.

ten, mundu guztiko sukaldaritzak. Noski, ahal nuen lekuan ere erakusten nuen Euskal Herrian egiten ziren gauzak. Bigarren fase batean, azkeneko 20 urteotan ere, nik nahi dudana egiten dut. Diseinuzko euskal sukaldaritzak egiten dut. Munduan gauza asko ikasi ditut, eta askotan, euskaldun doinuak emanez, egokitu egiten ditut.

Euskal sukaldaritzak fama dauka munduan. Izenaz gain izan ere ba al du?

Teknikaren jabe frantsesak dira, inongo dudarik gabe. Frantsesek historia handia daukate, luzea. Sukaldari guztiek Frantzia zer bait ikasi dute. Nire irudipena da, euskal sukaldaritzak modernoa beti izan dela. Adibidez, gure sukaldaritzan zein osagai era-

M. ARTOLA MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g

943 88 79 30

LAZKAO

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eraman-ekarriak

943 88 29 26
608 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO

biltzen ditugun aztertzen badugu, osagai asko eta asko Amerikatik ekarritakoak dira. Euskal sukaldaritzari piperra, patata, tomate... kenduz gero, elbarri geldituko litzateke. Euskal sukaldariak, batez ere, barazkietan eta arrainetan nabarmentzen dira. Euskal Herrian arrainari ematen zaion tratamendua, munduan inon ez zaio ematen. Adibide bat jarriko dut: ehiza prestatzen, Espainia aldean, ez dute erabiliko tomate edo piperrik. Horrek esan nahi du errezeta horiek, Colon Amerikara joan aurrekoak direla. Niri iruditzen zait, Colon Amerikara joan zenetik eboluzio bat izan duela euskal sukaldaritzak.

Euskaldunak beti jateko prest egoten gara. Euskaldunok erritoak egiten ditugu jateko garaian. Euskal sukaldaritzak munduan dagoen onena al da? Mundua handia, Txina bera ere bai, eta ni ziur nago Txinan gauza zoragarriak egongo direla. Baina aurreneko mailako sukaldaritzak bada, euskal sukaldaritzak.

Hori bai, euskal sukaldaritzaren izenean egiten den guztia ez da euskalduna. Euskaldunetik daukan bakarra, euskaldun batek egindakoa dela da.



Lazkaotar unibertsala

Munduan barrena asko ibilia da. Ikasitakoa erakusteko, sukaldari eskola ere sortu du, Ficoba bertako instalazioetan. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen du Izagirrek.

Orain, teknologia berriei esker, internetean ere ikus daiteke Iñaki Izagirre gauden tokian gaudela. Labekoetxe eta Ficoba jatetxeen berri ematen da bertan. Kartak, erreserbak egiteko modua, lan poltsa... Iñaki Izagirre beraren figura... *"Prezioak interneten ere jarri ditu. Nik ez daukat sekreturik. Jendeak askotan ez du jakiten zer ordaindu behar duen jatetxe batera joanda. Jendeak ez dezala ezustekorik eraman"*.

Lanak eta buruhaustek dena den, uzten dio tarterik Lazkao aldera etortzeko. San Prudentzio jaietan urtero etortzen omen da bere jaioterrira. Nola ez, bazkaltzera.

Sukaldaritzak berria ala tradizionala?

Kokotxak gaintzeko diseinu asko egin behar dira. Gauza berriak: laboratoriora pasatu ditzakezu orduan plater

berriak prestatzen, baina azkenean, jendeak agintzen du.

Inori minik egin gabe, zera esan nahi dut. Kreatibitatea adibidez, sukaldariaren kreatibitate handiena da, lu-

rrin-zaporea dago. Baina sukaldari askok kreatibitatea jartzen dute arkitekturan eta pinturan.

Sukaldari on batek zer behar du?

Sukaldari nagusi ona ez da 28 urterekin egiten. Alde batetik, kultura bat behar da, denborarekin hartzen den kultura bat. Jaten ere jakin egin behar da eta jaten jakiteko denbora asko pasatzen da. Leku eta gauza ezberdinak ezagutu, dirua gastatu... Jaten jakitea garrantzitsua da. Platerak ateratzen dira ondo, norberari gustatzen ez zaion ezer ez egiteko esaten nik nire lagun-tzaileek. Eta horrek ez du hutsik egingo. Horretarako, noski, jaten jakin behar duzu.

Gustatzen zaizun plater bat:

Dena gustatzen zait.

Sukaldaririk onena ama izaten al da?

Amaren sukaldaritzara ohituta gaude. Nire jatetxera astean behin baino gehiagotan etortzen bada, kontuz! Aspertu egingo da eta. Aspertzen ez gaituen sukaldari bakarra ama da. Munduan, urte gutxian, nazkatu gabe, jaten ematen duen sukaldari bakarra dago: ama.



TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industriarako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

lbabe Industrialdea, 21

☎ 943 88 95 94

LAZKAO

Aseguru Korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE, S.L.

Elozegi, 1 - behe

Tfno.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Lazkaoko San Benito ikastola

Espainiar Estatuko 100 onenen artean

1.000 ikastetxe pribatu neurtu ditu El Mundo egunkariak

El Mundo egunkariak, 5 urtez jarraian, Espainiar Estatuko ikastetxe pribatuen artean azterketa egin du, 100 ikastetxe pribaturik onenen zerrenda osatzeko. Lazkaoko San Benito ikastola, 46. postuan ageri da. Bera da Gipuzkoako ikastetxe bakarra. Hezkuntzaren kalitatea eta maila neurtu nahi izan ditu El Mundok.

23 irizpideren arabera egin da neurketa. 10 urte baino gehiago izatea eta gutxienez 300 ikasle izatea izan dira azterketa horretan sartzeko lehenengo baldintzak. Ia 1.000 ikastetxe aztertu ondoren osatu du 100 onenen zerrenda El Mundo egunkariak.

Bosgarren urtez egin du egunkari honek ikastetxe pribatuen zerrenda hau. San Benito ikastolakoez aurrean izan



dute horren berri, Belen Maiza, San Benito ikastolako zuzendariak kontatu digunez. "Bosgarren urtea da El Mundok horrelako azterketa eta sailkapena egiten duela baina egia esan gu aurten enteratu gara. Beraiek deitu ziguten datu batzuk eskatuz. Telefonoz datu horiek eman eta handik 3 astera, lehenengo baldintzak betetzen genituela eta, datu gehiago eskatu zizkiguten, eta galdekizun bat erantzun behar izan genuen. Ordura arte ez genion garrantzirik eman, inkestak askotan behar izaten ditugu eta. Baina El Mundo egunkariak

martxoaren 30ean kaleratu zuen zerrenda hau eta guk Onda Cero irratiak deituta jakin genuen".

Merkeena

Ikastetxe pribatuak dira zerrendan azaltzen direnak, hau da, hilero kuota bat kobratzen dutenak. Dena den datu nabarmen bat badago: San Benito ikastola da merkeena, 0-2 urte bitartekoek bakarrik ordaintzen baitute. "Hilean 300 euro kobratzen dutenak ere badaude. Prezioak ikusita izututa gelditu gara. Oso ikastetxe klasistak dira zerrenda horretan azaltzen di-

renak. Nik meritu gehiena horri ematen diot: baloratu dituzten parametro horietan ematen dugun eskaintza ona dela".

Herririk txikiena

Zerrenda honetako herririk txikiena ere Lazkao da. Zerrendako lehen lekuetan, Madril eta Bartzelonakoak daude. "Berealdiko sorpresa izan da. Guk normalean gure ingurua ezagutzen dugu eta egiten duzun hori ez duzu konparatzeko egiten. Baizik eta, norberarenari erantzun nahi izaten zaio, ahalik eta ondoen. Honek daukan bentaja da, kanpotik, datuak eskatuta, datu konparaketa bat egin dela eta parametro horietan kokatu gaituela. Ikastolarentzat garrantzia du horrek".

Ikasturte oparoa ari da izaten 2003-2004 San Benito ikastolarentzat. Izan ere, 2003. urtean kalitatearen Zilarrezko Q jaso zuten lazkaotarrek.

OSKARBI ARROPA GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

OIARBIDE harategia

festa onak opa dizkizuegu

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
☎ 943 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15
☎ 943 16 05 16

AUTO-MOTO LAGUNAK

Ibabe Industrialdea, 19 ☎ 943 88 91 51 **LAZKAO**

- ✕ Autoen konponketa orokorrean
- ✕ Gasolina eta diesela
- ✕ Norabide zuzenketa
- ✕ Olio aldaketak, koipeztaketak
- ✕ Gurpilak, zulatuak
- ✕ Diagnosiak

Filosofia

850 ikasle eta 69 irakasle ditu San Benito ikastolak. 0 eta 18 urte bitarteko irakaskuntza bermatzen du. Eleaniztasuna du ardatz; euskara, gaztelera eta ingelera dakitela ateratzen dira bertako ikasleak.

Programa berritzaileak txertatu dituzte San Benito ikastolakoek euren hezkuntza sisteman. Belen Maiza zuzendariak Lazkaoko ikastolaren filosofia laburbildu digu. "Informazioaren aurrean kritiko egiten saiatu eta kritikotasun horretatik informazioa kultura bihurtu behar dugu. Ikasteko teknikan programa berritzaileak txertatuta ditugu. Adibidez, suspertze goiztiarrarekin, neuronen arteko lotura egitea da gure helburua. Gaitasunetan eragiten ari gara txiki-txikitatik".



2003. urtean Lazkaon egin zen Kilometroak jaian ateratako diruarekin, eraikuntza berritzen ari dira.

Maizaren esanetan, eskola berritu egin behar da etengabe. Kasu honetan, teknologia berrietara egoki behar izan du: "Teknologia berriaren sorrera bitartean, gizartearen eskolari eginkizun oso zehatz bat eman zaio: kulturaren transmisioa egitea. Transmisio horretan, eskola kanala

zen. Momentu honetan hori gainditu egin da. Kultura eta informazioa edozein tokitan dago eta teknologien sorrerarekin eta zabalkundearekin, kultura eta ezagupen hori edozein lekutan dago, instant batean. Edozein lekutan edozer gauza gertatzen dela, segundo batean informazio ho-

ri kanal ezberdinetatik zabalitzen da. Eskolak erabiltzen duen informazio hori zatitua dago. Eskolaren funtzioa aldatzen ari da. Eskolak ez dauka ezagupenaren transmisioa egiteko patrimonioa, leku askotan dago. Teknologien nolabaiteko gizartearen ezarpen honetan, garbi dago eskolak beste zerbait egin behar duela. Hau da, instrumentuak eman, gaitasunak garatu ikasleengan, edozein lekutan dagoen informazioa kultura bilakatzeko. Orain ikaslea kritikoa egin behar da informazio horrekiko. Irakasleok ere ariketa zaila egin behar izan dugu filosofia aldatzeko". Hori bai, berrikuntza beti da arriskua. "Ez dakizu asmatuko duzun ala ez, baina badirudi bide onetik goazela eta pozgarria da. Profesionalentzat satisfakzio bat da".

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Lagorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda. **Legazpi:** Jabi harategia.

IBAi-ONDO
AROTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizkoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**



BIDAIAK

OVER Taldea

Kale Nagusia 42, behea

Tel./Faxe: 943 80 40 15

BEASAIN

urakibidai@telefonica.net

Maiatzerako 8
eguneko bidaia


hartzeagatik,

beste 8 eguneko

bidaia oparitzen da

iraila edo urrirako

(Esapainiako kostarako)



Sole Palomino Lazkaon moja dagoen mexikarra: "Gure liturgia otoitza da eta ulertu ahal izateko ikasi nuen euskara"

Lazkaoko zistertarren komentuan 20 moja daude gaur egun. Horietatik bi gazteenak mexikarrak dira. Elbia 36 urtekoa eta Sole Palomino 44 urtekoa. Azken honek 10 urte daramatza Lazkaon. Bitarte honetan euskara txukun ikasi du. Euskara hutsez egin dugu elkarrikiteta eta bertan kontenplazioko bizitza egiten gustura dagoela aitortu digu.

Noiz eta zergatik etorri zinen Lazkaora?

Orain dela 10 urte etorri nintzen. Urteak oso azkar pasatzen dira. Ni, Mexikon, beneditarren komentuan 15 urterekin sartu nintzen eta nire ametsa kontenplazioko bizitza egitea zen. Orduan oso gaztea nintzen, ikasketekin jarraitu nuen. 20-21 urtere-

kin, nire bizitzako formazio prozesu horretan zer egin nahi nuen erabakitzeke garaia iritsi zen. Betirako bide horretatik jarraitu nahi nuela erabaki nuen, eta bereziki kontenplazioko bizitzan. Mexikon ez nuen horretarako egokierarik. Orduan Jainkoak nire bidean zein aukera jarriko zuen zain egon nintzen. Erroman ikasketak egin zituen ezagun baten bidez bokaziodun mojak behar zirela jakinarazi zigun. Beraren bidez etorri nintzen Lazkaora.

Lehenik urtebeterako etorri nintzen, esperientzia bezala, eta ondoren bertan geratu edo itzultzea erabaki behar nuen. Eta hemen jarraitzen dut.

Nolakoa izan zen hasierako garai hura?

Asko kostatu zitzaidan egokitzeta baina poliki-poliki bertako bizitzara ohitzen joan nintzen. Euskal Herriko sustraiak eta kultura ezagutu



nahi izan nituen. Hemengo ohiturak eta bizitzeko modua nik bizi izan nituenetik oso desberdinak dira. Uste dut okerrera pasatu dela.

Nire amaren aldetik aiton-amonak euskal jatorrikoak ziren eta euskal kulturari buruz zerbait beraiei entzuna nintzen.

Eta euskara ikasi duzu.

Bai horretan ari naiz. Niretzat garrantzitsuena hitz egitea da. Hemen barruan gutxi hitz egiten dugu. Ni elkarrikiteta txikieta eta saiatzen naiz, baina elkarrikiteta sakonagoak egiteko kostatzen zait. Lotsa pixka bat ematen dit. Gure otoitz eta abestiak erdaraz eta euskaraz dira eta horregatik ikasi nahi izan nuen. Gure liturgia, bizitzeko modua, otoitza da eta hori ulertu ahal izateko ikasi nuen.

Hemengo pentsaerarentzat berezia da neska gaztea moja egitea. Nola hartu zenuen erabaki hori?

Txiar

**GOZOTEGIA
OKINDEGIA**

Festak endo pasa!

Hirigoien 20
Tel.: 943 88 11 54
LAZKAO

ZUZENKI
A HOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.txekin.net



GERRIKO
LIBURUDENDA

☎ 943 88 65 00
Elosegi 16 LAZKAO

Geurean geure kultura!
Goierriren bihotzean, GERRIKO

Txikia nintzenetik nuen go-goja mojan izateko. 14 anai-arreba gara. Ahizpa bat moja beneditarra dut eta beraren bidez ezagutu nuen komentua. Behin komentuan sartu eta bokazioa sortu zitzaidan. Nire gurasoek esaten didate txikitatik banuela zerbait, iza-era edo zerbait.

Nolakoa da bizitza komentu barruan?

Garrantzitsuena otoitza da, hori da gure apostolutza eta horretarako gaude hemen. Egunezko zatirik handiena otoitzean pasatzen badugu ere, gainerako lanak banatuta ditugu: batzuek sukaldeko lanak egiten dituzte, besteek garbiketa... Lehen jostun lanak eta baratzeko lanak egiten ziren baina kideak adinean aurrera doazenez horiek utzita gaude, etxerako zerbait bakarrik egiten da. Beste moja batzuek gure beharra dute-

*20-21 urterekin,
nire bizitzako
formakuntza
prozesuan zer
egin nahi nuen
erabakitze
garaia iritsi zen.
Betirako bide
horretatik jarraitu
nahi nuela
erabaki nuen, eta
bereziki
kontenplaziozko
bizitzan.*



nez ez du merezi indar horiek baratzean gastatzea. Beneditarren arropen konponketekin eta kanporako liburuen enkuadernatzearekin bakarrik jarraitzen dugu.

Zein helbururekin, zeinen alde egiten duzue otoitz?

Munduaren alde. Munduan

behar asko dago eta hainbat jendek zerbait behar badute eta horren alde otoitz egiteko eskatzen digute. Baina orokorrean munduaren alde egiten dugu.

Korrikan lekukoa eraman zenuen.

Orain dela 3 urte esfortzu txiki bat egin nuen. Orduan AEK-n euskara ikasten ari nintzen. Euskara ikasteko laguntza asko jaso nuen eta nolabait hori eskertzeko ataratzearabaki nuen. Ez da beste munduko ezer. Niri ez zait kostatzen horrelako gauzak egitea, agian beste batzuei kostako zaie.

Eliza guztia ari da pixkanaka aldatzen. Mundua aldatzen ari da eta eliza ere gaurko garaietara egokitu beharrean dago.

Mexikon zein aldetakoa zara? Bisitatu joaten al zara?

Mexiko erdialdean dagoen Guanajuaton jaioakoa naiz. Duela 6 urte profesio solemnea egin aurretik joan nintzen bertara. Ondoren gurasoak nire profesiorako etorri ziren. Abadesak esan dit aurten joan ahal dudala eta udazken aldean hegazkinak merkeago dauden garaian joaten saiatuko naiz. Anai-arrebak joateko eskatzen dauzkat.

"Ahizpa bat moja beneditarra dut eta beraren bidez ezagutu nuen komentua. Behin komentua sartu eta bokazioa sortu zitzaidan"



ETXE-ZURI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

- ✓ Eguneroko menua 7 euro
- ✓ Sagardoa txotxetik urte guztian
- ✓ Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
- ✓ Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

Etxe-Zuri baserria

☎ 943 882 049

OLABERRIA



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

Elosegi 19-B LAZKAO

☎ 943 88 72 99



GARAIZ

jantziak

Jai zoriontsuak denoi!

Hirigoien, 8-10

Tel.: 943 880 840

LAZKAO

Don Juan Manuel Sarasola Garmendiari omenaldia 1924 inguruan

Argazki honi begira jarrita, pentsatzen jarri naiz, non ote daude hauek denak? 1924 aldera ateratakoa dugu eta duen berezitasuna, hor erdian, aurreko ilaran dagoen aitona bizar luze zuri horrena du.

Don Juan Manuel Sarasola Garmendia, Ordizian jaioa eta Lazkaon bere bizitzako lantegia izan zuen. Bere tituluak 'barbero, practicante, cirujano' ziren. Lazkaoko sendagilea izan zen. Lan klase asko eginik izango genuen gizon hau. Sendagile bezala fama handiko gizona. Herri askotako jendea ailegatu zen beregana erremedioren baten bila, bereziki Nafarroa alde-tik. Orain bertara Opusera joaten garen bezala. Erditzeetarako berezia izan behar zuen. Begiratu besterik ez dago eskuko behatzak zeinen fin eta luzeak dituen. Azaleko gaitzetarako ukendu berezia izan behar zuen. Hagin eta hortzak ateratzen eta zirujau bezala,



berriz, garai hartan gutxi bezalakoa. Errespetu handiko gizona eta jakinduriaz ere tamaina handikoa zen.

1922an don Jose Lasa mediku titularra izandatu zuten Lazkaorako eta orduan iritsi zitzaion bere azken urteetako lasaitasuna eta ondo merezitako deskantsua. 1931ko apirilaren 21ean hil zen 83 urterekin Juan Manuel Sarasola Garmendia.

Argazkian azaltzen da Lazkaoko herriak berari egin zion omenaldian, bere alboe-

tan bi alaba, eskuinean Kandelaria eta ezkerrean Dolores. Ez dute ondorengorik izan.

Herriko gizonak bakarrik azaltzen dira, emakumeak etxean geldituak izango ziren. Apaizak Don Daniel Agirre parrokoa, aita Bernardo, Francisco Berasategi eta Francisco Armendariz dira, aldamenean Benantxio sakristaua du. Ezkerreko ixkina aldetik Antero Larrañaga mutil gaztea, iaz 99 urterekin hil zena. Jenobebo Larrañaga, Jose Inazio Sasianbarrena, Nicomedes Larrañaga eta Pa-

txi Albisu. Erdiko arkuan 3 bereizten dira txikiena, Francisco Mari Garmendia Bionakoa, Jose Mari Albisu eta Jose Lasa sendagilea. Eskuineko aldean bigarren ilaran herria zaintzeko egon ziren gizonak, Santiago Erauskin, Luziano Ormazabal, Francisco Altolagirre, Kaxiano Vitoria aguazila, eta abar. Ikustekoa da hauen dotoretasuna, traje, korbata eta bigoteak. Eta eskuineko iskuinean dagoena Juan Irizar erretorea, honek lepo ondo guria.

Andres Barandiaran

GUKlan

Bainuko osagaiak
Berogintza
Iturgintza
Gasa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe



AZKARATE

IBABE INDUSTRIALDEA

943 88 81 01

LAZKAO

ARTANO

Jai zoriontsuak
denoi!



ARRANDEGIA

Uhaitz, 2

943 882 444

LAZKAO

LORENA

Jai zoriontsuak
denoi!



ARRANDEGIA

Hirigoien, 18 943 88 5171 LAZKAO



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Felix Urkola
Alkatea

AGURRA

San Prudentzioren omenez ospatuko ditugun jaien inguruan zuengana zuzentzeko dudan aukeraz baliatuz, nire agurra eta jai alaiak igaro ditzazuela opa dizuet lazkaotar eta guregana hurbiltzen zareten guztioi.

Lehenik eta behin nire eskerrik beroena agertu nahi nizueke festa hauetako egitaraua prestatzen aritu zaretenoi eta berau gauzatzeko egun hauetan ere lanean jardungo duzuen guztioi.

Egun hauetako jai giroak, egunerokoak sortzen dituen ikamika eta tentsioak gainditu eta, aldi berean, behar beharrezko ditugun elkarrenganako laguntasun eta elkartasun zubiak eraikitzeke balio diezaigutela.

Amaitzeko desio bat, jakin dezagula denok Sanprointzioak behar den bezala disfrutatzen, bakean, elkartasunean eta nola ez festa giro jatorrean.

Gora San Prudentzio jaiak!

Gora Lazkao!

LAZKAOKO UDALA



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK




BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

IDIAZABALEN VII. GAZTA EGUNA



Egitaraua

Apirilak 27, asteartea:

18:30ean: Iker Martinez Kuko jatetxeko sukaldariaren j. 'Gaztaia sukaldean' hitzaldia eta plater baten prestaketa Arretxe elkartearen.
Ondoren: Mami txapelketako irabazleen emaitza.

Apirilak 30, ostirala:

19:30ean: Hitzaldia, 'Idiazabalen garrantzia euskal turismoan, oraina eta geroa', Mercedes Rodriguez Larrauri eta Nikolas Osinalderen eskutik. Artzai-Gaztako lokal berrian, ondorne instalazioak ikusteko aukera eta luntxa.

Maiatzak 1, larunbata:

19:30ean: Hernaniko bertso eskolako bertso parodia.
21:00etan: Herri afaria herriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai tabernetan). Afalondoan bertsolarien saioa.

Maiatzak 2, igandea:

10:00etan: Artzainek gazta salmentarako postuak irekiko dituzte.
Jean Bordaxar eta bere taldearen kantu saio.
11:00etan: Herriko artzainek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora. Gaztaia ketzen ikasteko aukera izango da.
11:00etan: Artilegintza erakustaldia.
12:00etan: Mami erakustaldia.
13:00etan: Ondramuño baserriko Antonio Imaz eta Angela Insaustiri omenaldia.
Arratsaldean, Herri Kirolak Igarondo Pilotalekuan: Banakako Urrezko Aizkora: Arrospide Larretxearen aurka. Ondoren Jean Bordaxar eta bere taldearen kantaldia.

Maiatzak 2,
igandea



Idiazabalgo
Udala

Artzai Gaztak egoitza berria du Idiazabalen

Elkarteak 132 artzain biltzen ditu

Artzai Gazta Elkartek egoitza berria du abenduaz geroztik. Idiazabaldik mugitu gabe, elkartearen bulegoak leku berri eta handiagora eramane dituzte. Lehen, Artzai Gaztak zerbitzuak lokal ezberdinetan banatuta zituen, orain, egoitza bakarrean bideratzen dute beraiei egin beharra.

Artzai Gaztak 132 artzain biltzen ditu eta bazkide horiei zerbitzua ematea da bere zerbitzu nagusia. Eli Gorrotxategi da Elkarteko presidentea eta Idiazabalgo egoitzan Lurdes Murua Artzai Gaztako idazkaria egoten da. Bere esanetan, lokal berriak lana asko erraztuko die *"lehengo egoitza ederra zen baina ez zegoen ondo atonduta. Hau berriaz lokal oso ikusgarria da, zabala, eroso, eduki behar duen guztia dauka honetan"*. Egoitza berria Idiazabalgo Kiroldegiaren alboan dago, etxebizitza eraikin baten beheko solairuan. 7 gune ezberdin ditu: artzainek erabiltzen dituzten tresnak gordetzeko gela, produktu kimikoen biltegia, bi kamara (gastak gordetzeko bat eta gatzagia edukitzeko bestea), bi bulego eta bilera gela.

Artzai Gaztaren eginbeharra *"elkarteko 132 bazkideei era guztietako zerbitzua eskaintzea da"*, Lurdes Muruaren esanetan. Idiazabalgo lokalean artzain horiek gazta egiteko behar duten tresneria edukitzen dute (ontziak, mantalak, guanteak, gatzagia...). Laguntza tekniko ere eskaintzen du elkarteak, horre-



tarako bi teknikari dituzte.

Zumitz

Artzai Gaztak eskainitako zerbitzuak eta laguntzak, artzainen lana erraztu eta hobetu du. Elkartearen babesean, artzainak, ekimen berriak bultzatu dituzte, Zumitz elkartearen esate baterako. *"Zumitz, Artzai Gaztaren semea edo alaba da. Artzainak konturatu ziren beraiei gazten artean oso kalitate oneko batzuk bazeudela. Haiei beste irtenbide bat eman behar zitzaizela uste zuten, eta hala sortu zen Zumitz"*, dio Lurdesek. 27 artzain daude Zumitz elkartearen. Kalitate hoberearen adierazgarri, etiketa beltza edo berdea izaten dute Zumitz izenpean saltzen diren gaztek.

Kalitate goreneko gazta horiek aukeratu eta zein etiketa jarri erabakitzeak kata

edo dastaketak antolatzen ditu Artzai Gaztak bi astean behin, martxotik aurrera. Orain arte dastaketa horiek hotel batean egin beharra izaten zituzten egoitza zaharretan ez zegoelako lekurik. Aurten lokal berriaren egingo dituzte. Saio horietan, Idiazabal jatorri izenaren elkarteko ordezkari bat egoten da. Kata horietan, artzainek aurkeztutako gaztak kalitate gorenekoak diren ala ez erabakitzen da, ondoren, Lurdesen hitzetan *"itxura aldetik ere ezarritakoa betetzen badu etiketa beltza jartzen diogu, bestela, gustoz oso ona izanda ere itxura aldetik gabeziaren bat baldin badu etiketa berdea jartzen diogu"*. Beltza ala berdea, biek gaztaren zaporea oso ona dela adierazten dute.

Gazta salgai

Artzai Gaztaren egoitzan baz-

kideek gordetako gaztak egoten dira, baita dastaketak egiteko uzten dituztenak ere. Hala ere orain arte ez da egon bertan gazta erosteko modurik. Laster, egoitza berriaren sarreran gazta salmentarako puntua jarriko dute. Elkarteko idazkariaren arabera *"egoitza zaharra plaza ondoan zegoen eta bertara jende asko, batez ere kanpotarrak, gazta erostera etortzen ziren"*. Elkartek aspalditik zuen asmoa da baina, lokal berrira joan arte itxaron beharra izan dute hura gauzatzeko. Salmenta puntua ezartzeko baimenak dagoeneko eskuratu dituzte eta laster prest egotea espero dute.

Artzai Gaztaren egoitzan, elkarteko artzainek egindako gazta salduko dute. Beraiek ekartzen duten moduan eskainiko zaie erosleari, *"gu ez gara arituko gazta zatitzen. Artzainak gazta erdia ekarri badu, hura dagoen moduan salduko da. Laurdenak ekarri gero, laurdenak"*, azpimarratu du Lurdesek.

Artzai Gaztaren egoitza aspalditik dago Idiazabalen. Herritar askok bulego zaharra ez zuen barrutik ezagutu. Berria, ordea, ia idiazabaldar guztiek ezagutzen dute. Martxoako hauteskundeetan bertan jarri zituzten botoa emateko kuxkak. Herritar askok, orduan, egoitza berriaren sarre- ra ikusteko modua izan zuten. Dena den, Gazta Egune-ko ekitaldiak direla eta, apirilaren 30ean Idiazabal eta turismoari buruzko hitzaldia emango dute bertan. Bide batez, herritarrei egoitza berria erakutsiko zaie.

Xabier Urteaga

"7 gune ezberdin ditu: artzainek erabiltzen dituzten tresnak gordetzeko gela, produktu kimikoen biltegia, bi kamara, bi bulego eta bilera gela"

VII. Gazta eguna Idiazabalen, maiatzaren 2an

Astean zehar ere hainbat ekitaldi izango da

Apirilak 27, asteartea:

18:30ean: Iker Markinez Kuko jatetxeko sukaldariaren eskutik 'Gaztaia sukaldean' hitzaldia eta plateren baten prestaketa Arretxe Elkartearen. Ondoren Mami txapelketako irabazleen emaitza.

Apirilak 30, ostirala:

19:30ean: Hitzaldia: 'Idiazabalen garrantzia Euskal turismoan, oraina eta geroa', Artzai-Gaztako lokal berrian, (Kale Nagusia 37). Hizlariak: Euskal Gobernuako turismo zuzendaria Mercedes Rodriguez Larrauri eta Nikolas Osinalde Gurrutxaga Goierriko Turismo zuzendariaren eskutik (Goitur).

Ondoren Artzai-Gazta lokaleko instalazioak ikusteko aukera eta luncha.

Maiatzak 1, larunbata:

19:30ean: Hernaniko bertso eskolako ikasleen eskutik bertso paradia, Arretxe Elkartearen aurrean.

21:00etan: Herri Afaria herriko elkartean (txartelak aurrez salgai tabernetan).

Afalondoren bertso saioa Hernaniko bertso eskolako bertsolarien eskutik.

Maiatzak 2, igandea:

10:00etan: Artzaiek gazta salmentarako postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzaiek gazta egingo dute era zaharrra eta modernora. Gaztaia ketzen ikusteko aukera izango da.

11:00etan: Artilegintza erakustaldia.

12:00etan: Mami erakustaldia.

13:00etan: Ondramuño baserriko Antonio Imaz eta Angeles Insaustiri omenaldia.

Arratsaldean: Herri Kirolak Igarondo Pilotalekuan. Banakako Urrezko Aizkoraren Txapelketa: Arrospide - Larretxearen aurka.

Ondoren Jean Bordaxar eta bere taldearen kantaldia.



Gazta debalde

Goiz guztian zehar, gazta debalde dastatzeko aukera izango da. Gazta onenari eta postu dotoreenari sari bana emango zaie, bildutako jendearen iritzia kontuan hartuta. Gaztaz gain, beste hainbat jaki eta edari postu ere izango dira Idiazabalgo kaleetan. Idiazabalgo kronikan duzue informazio gehiago. Beste hainbat ekitaldi osagarri ere izango da: ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz; eta euskal artzai txakurrak eta 'Mastin' arrazakoak erakusgai. Trikitilariak eta txistulariak alaituko dute eguna. Herritarrei artzai jantziekin jantzita irtetzea eskatzen zaie.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

ainaraetxeberria

HANKARA

podologia zentroa



Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4

BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

INIAUSTI

KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



163 herritar

Martxoaren 30eko batzarrean honako erabakiak hartu ziren:

● Udalak 2004rako onartu duen aurrekontua 435.200 eurokoa izango da.

● Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita gertuko dira ondorengo baldintzak betetzen dituztenak. Honetarako Udalean eskariak aurkeztu beharko dituzte interesatuek; baldintzak honako-

ak direlarik: %33 edo gehiagoko gutxitu maila kreditatzea. Ibilgailua gutxituaren izenean egotea eta soilik bere erabilpen pertsonalerako izatea. Eskatzaile bakoitzari, soilik ibilgailu bati dagokion salbuespena aplikatuko zaio. Salbuespena eskatzailearen baldintzak aldatzen ez diren bitartean mantenduko da.

● 2004ko urtarrilaren 1ean

Ibilgailuen zerga

Herritarrei jakinerazten diegu 2004eko Ibilgailuen Gaineko Zerga borondatezko epean ordaintzeko azken eguna apirilak 30 izango dela.

Familia ugariak

2003ko Urriaren 14an Familia Ugariak laguntzeko asmoarekin Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ondorengo murriztapenak egitea erabaki zen: 3 edo 4 seme-alaba dituztenek %75eko deskontua izango dute. 5 edo gehiago seme-alaba dituztenek %90eko deskontua izango dute.

herriko biztanle eroldaren egoera honakoa da: 2003ko urtarrilaren 1eko biztanle kopurua: 166. Urtean zehar

eman diren altak: 4. Urtean zehar eman diren bajak: 7. 2004ko urtarrilaren 1eko biztanle kopurua: 163.



Familia ugariarentzako hobariak

Oraingo honetan Itsasondoko udalak 2004. urtean hartutako erabakien berri eman nahi dizuegu:

● Urtarrilaren 30eko batzarrean eta familia ugariak laguntzeko asmotan, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ordainketan hobariak onartu dira. Hiru seme-alaba dituztenek %60eko hobaria izango dute eta 4 edo gehiago dituz-

tenek berriz %90eko hobaria izango dute. Interesatuek beraien eskaerak udaletxean egin beharko dituzte eta Familia Ugari titulua aurkeztu beharko dute.

● 2004ko urtarrilaren 1ean udaleko biztanle eroldaren egoera honakoa da: 2003ko urtarrilaren 1ean 564 biztanle zituen Itsasondok. Urtean zehar eman diren alta kopurua

Jolastokia egiteko dirulaguntza

Udalak Erein 2003 programaren barne herrian jolastokia egiteko dirulaguntza eskatu zuen; Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen Zuzendariak 24.385 euroko dirulaguntza ematea onartu zuen.

Ibilgailuen zerga

Herritarrei gogorarazi nahi diegu 2004ko Ibilgailuen Gaineko Zerga borondatezko epean ordaintzeko azken eguna apirilak 30 izango dela.

30ekoa izan da. Eman diren baja kopurua berriz 39koa izan da. Ondorioz biztanle kopurua 555ean geratzen da.

● Bestetik langabeziaren kontrako planaren barne, Itsasondoko udalak Inem-i laguntza eskatzen dio peoi la-

netarako langile bat kontratatzeke.

● Udalak bere egitasmoak aurrera eramane ditzen 2004rako onarturiko aurrekontua 1.034.900 eurokoa izango da.



Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Nekane Garmendia Venezuelan 'maestra'

Nekane Garmendia Magistritzako ikasketak ari da egiten Eskoriatzan eta aukera izan du Venezuelara joan eta ia bi hilabetez bertako hezkuntza gertuagotik ezagutzeko. Horrekin batera, proiektu bat txertatzeko helburua ere izan du Nekane; alegia, bokalak eta zenbakiak ikasteko, eskolan denda bat muntatzea. Era honetan, ikasleak motibatu nahi izan ditu Nekane. Bide batez, Carrefourrek eta Kutxak emandako eskola materiala ere eraman du Euskal Herritik Venezuelara.

Mayacaibo hiriko auzo pobre bateko 'Fe y alegría' eskola erlijiosoan egon da, haur hezkuntzakoan gelan. Kultura ezberdineko haurrak biltzen ziren bertan: venezolarrak, kolonbiarrak eta guajiroak. "Tratu txarrak jasotzen zituzten haurrak asko zeuden. Gosea zutenak ere bai", dio Nekane.

Goizeko 7etatik 12etara izaten zituzten eskola orduak. "Egiten duten lehenengo lana, ereserkia edo himnoa abestea izaten zen, neskak eta mutilak ilara ezberdinetan jarrita. Irakasleek ere abesten zuten. Hurrengo lana, otoitz egitea izaten zen. Gero, ba-

koitza bere ikasgelara sartu eta gosalduta egiten zuten".

Hezkuntza mailan dauden aldeak nabarmenak badira ere, zerak harritu du Nekane: "txabolak dira eskolak, baina barrua hori bai, hemen bezala, txoko ezberdinetan banatuta dituzte, txoko bakoitzean arlo ezberdinak lantzeko".

'Maestraren' lanean ere aurkitu du alderik. "Irakaslea mahaian eseri eta ez zen mugitzen. Ikasleak eurak joan behar zuten irakaslearengana eta ez alderantziz. Asko lotsatu egiten ziren. Idazteko eta zenbatzeko zailtasun handiak zituzten, eskolari ez bai-



Doilin, Jessi, Erika, Yuliannis eta Naivelis neskatilekin ageri da Nekane Garmendia argazkian, eskolako jolastokian.

tie batere garrantzirik ematen. Askotan gainera, jarraipenik ez zaio ematen, edozein egunetan jai hartzen dute eta irakasleek", dio Nekane. "Haurrak harritu egiten ziren ni beraiegana hurbildu eta beraiekin jolasten hasten

nintzenezan". Hori bai, "ez nuen lortu haur batzuegana gerturatzea".

Hiri arriskutsua

Berriz itzultzeko gogoarekin gelditu da Nekane, "nire umeak berriz ere ikusteko". Horretara bakarrik, gainerakoan, bizitza gogorra ezagutu izan baitu gaintzarrak. 3 milioi biztanleko hiria da Mayacaibo. Hiri arriskutsua. "Legegirik gabeko hiria da. Inortaz ezin zara fidatu". Klase sozialak oso nabarmenak daude. Batzuk oso aberatsak eta besteak oso pobreak. "Oso hiri aberatsa da, urrea, zilarra eta petrolioia dute, baina gutxi batzuen eskura bakarrik doa irabazia".

Hori bai, Nekane aitortu digunez, "bizitzen ikasi dut Venezuelen".



Nekane Mayacaiboko 'Fe y alegría' eskolan eraiki duen denda, haurrek zenbakiak eta bokalak jolasaren bidez ikas dituzten.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

Iurre Auzoa

☎ 943 88 09 47

OLABERRIA

OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48





BAKAS

Kapell

MISS SIXTY

Tel: 943 88 79 92
Garagarza plaza, 3
ORDIZIA

Dolarea

jatetxea

Gure eguneroko menuak edo enpresa menuak dastatzera gonbidatzen zaitugu: betiko otordu eta ezohizko jakien konbinaketan dastamenera.

Etxeko otordurik onenen pareko!

Nafarroa etorbidea
21 Beasain
T. 943888 829



Txindoki-Alkartasuna

Institutua

Batxilergo guztien



ARTE BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injenerutza teknikoa
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpena
Altzari diseinua
Arropa diseinua...



TEKNOLOGI BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Injenerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

Izenematea:

Mai

Ugartemendi, 6. 20200 Beas

Telf. 943-880753

ADI:

ATE IREKIAK

Apirilaren 29an
Maiatzaren 4an

18:30ean

kalitatezko eskaintza

NATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Medikuntza
Erizaintza
Albaitaritza
Fisioterapeuta
Kimika
Matematika
Injinerutzak
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Ingurumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazar jarduera...



ide Heziketa:

ekoizpena
zpen editoriala


ANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Ekonomiak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpengintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Administraritzak
Merkataritza eta Marketing
Ostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...



Berria:
Batxilergo
Eleaniztuna

iatzaren 3tik 7ra

sain www.txindokialkartasuna.net



RENAULT

- IBILGAILU BERRIAK ETA AUKERAKOAK.
- GOITEKNOLOGIAN espezialistak.
- Mantentze-lanak **HITZORDUA ESKATU GABE.**
- **ORDEZKO IBILGAILUAK.**
- Renault **ASISTENCIA** zerbitzua **24 ORDU**etan: Tel.: 900 365 000
- **KARROZERIA, MEKANIKA** eta **ELEKTRIZITATE** eragiketak.

RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Sempere Industrialdea, 5-7
LAZKAO



Ihurre auzoko jaiak

Apirilak 30, ostirala:

18:00etan: Jaien hasiera trikitixa eta buruhandiekin.

18:30ean: Herriko haur eta gaztetxoentzako askaria.

23:00etan: Dantzaldia goizaldeko 3ak arte.

24:00etan: Mozorro lehiaketa hasiko da.

Maiatzak 1, larunbata:

10:00etan: Goiz eresia txistulariekin.

11:00: Meza Nagusia Jose Deuna Artisauaren kaperan.

12:00etan: Hamaiketako herrikoia.

17:00etan: Mus Txapelketa

17:00etan: Haurrentzako joakoak eta jarraian pailazoak.

18:00etan: Toka txapelketa.

19:00etan: Dantzaldia.

23:00etan: Dantzaldia goizaldeko 3ak arte.

Maiatzak 2, igandea:

10:00etan: Goizeresia Txistulariekin.

11:00etan: Meza

11:30ean: Eskulanen Tailerra

19:00etan: Askari herrikoia eta jaien amaiera.

Egun osoan zehar trikitlariak arituko dira kaleak animatzen.

Zerain



Berriz ere eliz ataria txiki geratu zen dantzazaleentzat

Joan den igandean, hilak 18, 'Zerain Dantza Zain' ekimeneko laugarren erromeria ospatu zen. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende asko bil-

du zen bertan eta berriz ere festa giroa nagusitu zen Zerain aldean. Kanpoan hotza eta euria ziren protagonista, baina eliz atariaren babesean

Trikitixa Otatza sagardotegian

Datozen bi larunbatetan, apirilaren 24an eta maiatzaren 1ean Otatza sagardotegian trikitixa izango da afal ostean. Erromeria giroan Zerainen trikitixa izaten ari den arrakasta ikusita, festa giroa sagardotegira ere eramatea okurritu zaio Jose Antonio Iparragirre Otatzako sagardozaleari. Gainera, jendea dantzatzera bultzatzeko bi afari zozketatuko ditu dantza egiten dutenen artean. Sagardoaren laguntzaz giro ederra egotea espero da.

jendea ederki asko berotu zen hankak mugitzen joan zen neurrian. Berriz ere, dantzazaleen elkargune bihurtu zen Zerain eta erromeria hauek gaur egun ere tokia badutela berretsi zen beste behin.

Urte honetarako aurreikusi diren bederatzi erromerietatik lau ospatu dira dagoeneko eta oro har jendearen erantzuna oso ona izan da. Euskal Herriko Trikitilari Elkarteko arduradunak, nahiz Zeraingo Kultur Elkarteko kideak eta orokorrean Zeraingo herria bera ere, oso gustura daude ekimen honekin. Arrakasta hitza da denen ahotan gehien entzuten den hitza.

Eguraldiaren arantza

Arrakastaz gain bada beste hitz bat ere denen ahotan dabilena, eguraldia hain zuzen. Orain arteko erromeriei nola baiteko zapore garratza eman die eguraldiak. Lehenengo erromerian, negu gorriko otsail hasieran, izan ezik hurrengo guztietan eguraldia aurka izan dugu. Elurra zuri, euria, haizea eta izotza; denetik ikusi dugu eliz atariko babesetik. Denon hoberako, ekainaren 8an ospatuko den erromerian, kenduko al dugu eguraldiaren arantza.

Ion Muñoa



Futbolariak Katalunian

15 urtez azpiko bi talde eta 17z beheko beste bat Katalunia aldean izan dira pasa den Aste Santuan. Adidas Torneo-a jokatu da bertan eta aurreko urteetan bezala goian utzi dute gazteok Ordizia izena. Esan besterik ez dago aurreko urteetan izandako jarrera ona txalotuz opari eder bat jaso zutela txapelketaren aurkezpenean. Ondoren hasi ziren futbol partidak eta esan 15 urtez azpiko "A" taldeak finala jokatu zuela. maila bereko "B" taldea 18.ena sailkatu zen. Guztira 32 talde izan ziren. 17 urtez azpiko taldeak, berriz, 5. amaitu zuen (guztira 36 talde). Sailkapen on hauek lortzeaz gain, Mikel Urretagoienak atezain onenaren saria eskuratu zuen 15 urtez behetiko mailan.

Futbol txapelketa

Koadrila Arteko XXV. Futbol Txapelketako 6 jardunaldi jokatu dira jada. 10 talde ari dira lehian eta momentuz berdintasuna da nagusi goi postuetan. Denek galdu dute neurketaren bat eta momentuz Tximista Sagardotegia da buru. Urbitarte Sagardotegia, Badago, Bustunmira, Irrintzi eta E.R. Matxain Ileapainde-

gia ere goi postuetan dira eta Ferro, Wispak eta Harrike ere ez dira urruti. Neurketarik irabazi ez duen talde bakarra Sarri King da. Denak denen aurka ari dira eta ligaxka amaitzean lehen lau sailkatuek finalerdiak jokatuko dituzte.

Bestalde, txapelketak mende laurdena bete duela eta ospakizun bereziak egingo dira final eguna bitartean. Finala uztailaren 10ean jokatuko da eta ondoren egingo den bazkarirako orain artean parte hartu duten jokalariek guztiak gonbidatu dira. Aurretik, beterranoen arteko neurketa bat ere iragarri da. Antolatzaileak argazki zaharrak ere biltzen ari dira, ondoren Barrenan erakusketa egin asmoz. Argazkiak uzteko ostegunetan Beti Alai pilotalekuko bulegora jo besterik ez duzue, arratsaldeko 7,30etatik aurrera (argazkiak itzuliko dira). Bestalde, bazkarirako izena emateko herriko hainbat tabernetan eskura ditzaitezue txartelak.

Errugbikoak ia-ia

Azken momentura arte eskuan izan du datorren urtea



Gazteak bertsotan

Oihana Bartra bilbotarra izan da XXIII. Osinalde Saria eskuratu duen bertsolari gaztea. Apirilaren 17an jokatu zen finala Gaborian eta aurretik 3 kanporaketa Idiazabal, Aztiria eta Ordizian. Ordiziakoa martxoaren 27an jokatu zen eta bertan Beñat Lizaso azpeitiarra eta ondoren irabazle izan den Oihana Bartra izan ziren aurrera egin zutenak. Argi Berri Elkartearen afal ondoren egin zen saioa eta giro onean burutu ere. Saioa entzutea joan zirenen botuen arabera Beñat Lizaso izan zen bertsolari gustukoena. Ondorioz VII. Argi Berria berak jaso zuen.

Potto irratia

Ez dira ixilik Jakintza Ikastolako irratiko esatariak. Ia egun osoz airean dira programazioan era guztietako gaiak jorratuz. Orain urte bete hasi zen emititzen berriro ere eta egun teknologia digitala erabiltzen dute, orain arte iritsi ezin zuten txokoe-tara ere iritsiz.

Santa Ana abesbatza

25 urte bete ditu aurtan Santa Ana Abesbatzak eta ekitaldi bereziak antolatzen dihardu. Horien artean euren kantak jasoko dituen CDa prestatzen ari dira eta espero dute urri aldera kalean izatea. Argazki erakusketa, saio bereziak... ez dira faltako urtea amaitu bitartean.

Ohorezko jokatzeko txartela, baina asteburuan Salamankan jasotako porrotaren ondotik aukera guztiak uxatu dira. Denboraldia amaitzeko bi neurketa geratzen zirela hirugarren zen Ordizia Ayma taldea. Lehen postua eskuratzea ezinezkoa zen jada. Baina bigarrena eskura zegoen. Horretarako Salamankan irabazi beharra zegoen eta ondoren azken jardunaldian Arkitek-

tura taldea mendean hartu. 19-14ko emaitzarekin itzuli ziren, ordea, Gaztelatik eta adio aukera guztiak, Arkitek-turak bere neurketa aurrera atera baitzuen. Honenbestez larunbatean amaituko da rugbykoentzat denboraldi bikain hau, igoera eskuratzea bakarrik falta izan zaion denboraldi bikain hau.

Aitor Calvillo

Oihana Bartrak irabazi zuen bertso sariketa

Osinalde sariketaren historian bigarren aldiz emakumezko bat gailendu zen joan den larunbatean elkarrekin urtero bertsolari gazteentzat antolatzen duen bertso sariketan. Oihana Bartra bilbotarra geratu zen lehenengo, saio txukun eta erregularra burutu ostean.

Ohiko afariarekin ekin zitzaion jada 33. edizioa bete duen jaialdiari. Inoiz baino afaltiar gehiago -117 lagun- bildu ziren Osinaldera, eta gero ere entzule ugari hurbildu zen bertsolaritzarekin gozatzera. Eta nahia bete zitzaizela esan behar, maila ona eskaini baitzuten sei bertsolari gazteek. Miren Artetxe hendaiarra eta Joxe Angel

Aranburu zaraustarra Aztiritik, Oihana Bartra eta Beñat Lizaso azpeitiarra Ordizitik eta Iban Urdangarin ataundarra eta Aritz Aranburu hernaniarra Idiazabaldik ziren sailkatuak.

Eusebio Igartzabal antolatzailerak eta epaileak adierazi digunez *"saio polita joan da, bertso on asko tartean zirela, eta seiek paretsuan jardun dute, inor besteen gainetik asko nabarmendu gabe"*. Kartzelako ariketan entzuleek izendatutako saria Aritz Aranbururentzat izan zen. Gaueko bertsorik onenaren garaikurra, berriz, Urdangarinentzat, finaleko goierritar bakarra berau.

Kultur astearen azken txanpa

Astebete hamaika ikuskizun izan ondoren, gainean dugun asteburuak emango dio azken ukitua kultur aldiari. Gaur ostirala, gaueko 10etan 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlan ospetsua izango da ikusgai pilotalekuan, Gorringo taldearen eskutik. Larunbata eta igandea haurrek jantziko dute; bihar arratsaldeko 5etan eskolaumeen antzerkia parrokiako aretoan, eta etzi Goruntzen dantza saioa eguerdian, musika eskolako ikasleen kontzertua arratsaldeko 5etan.

Bestalde, iragan iganderako iragarrita zegoen 'Hitzak patriketan' ikuskizuna bertan behera geratu zen, eta aurrerago emango da. Gogoratu argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daudela kultur etxean.

Goierriko bola txapelketa

Apirilaren 3an Gabirian jokatu zen saioak erabaki zuen aurtengo eskualdeko bolatako txapelketa. Eguneko tiraldian nagusi segurarrak izan baziren, sailkapen orokorrean zeraindar bat geratu zen lehendabizi, Antonio Alustiza, besteak beste Euskadiko txapeldun izana.

Eguneko sailkapena: 1. Zeferino Agirre: 48, 2. Marzelino Agirre: 47, 3. Antonio Alustiza: 47, 4. Antonio Miner: 47.

Behin betiko sailkapen orokorra: 1. Antonio Alustiza: 367. 2. German Gereñu: 365. 3. Zeferino Agirre: 364. 4. Markos Madina: 360.

Gazteen pilota txapelketa

Amaitu da aurtengo gaztetxoek herriz gairako pilota txapelketa. Finalak apirilaren 17an jokatu ziren Alkainburu pilotalekuan. Lau mailatan bereizi ziren inguruko herrietako pilotariak, eta horietatik bi titulu Zumarragak eraman zituen; Urretxuk eta Gabiriak txapela bana erdietsi zuten.

Benjaminak: A.Oliveira-M.Gutierrez 18 M.Antia-Markel Urrate 7.

Alebinak: Iban Maiz-Eñaut Asurabarrena 18 Jon Quina-Xabi Urzelai 7.


Infantilak: Quina-Aitor Biain 18 Julen Larrañaga-Iker Aleman 9.

Kadeteak: Aritz Etchezarreta-X.Domínguez 18 Gorka Maiz-Mikel Asurabarrena 10.

Ardo dastaketa ikastaroa

Udalak antolatu du ardoaren inguruko ikastaro berezia. 15 orduko iraupena izango du guztira, astearte eta ostegunetan emango da, bi orduko saioetan. Maiatzaren 18tik aurrera ekingo zaie klaseei, baina izena hilaren 7 baino lehen eman behar da udaletxean.

Aimar Maiz



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

300 korrikalarik egun eta erdian eman zuten izena

Aurten Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren data aurreratu behar izan du Udalak, Munduko Koparako puntugarri delako Zegamako froga hau eta ondorioz gainerako

nazioetan korritzen diren frogekin egutegia adostu beharrean gertatu delako. Esan bezala, Buff-Skysrunner World Series FSA 2004ean sartu da Zegama-Aizkorri Mendi Ma-

ratoia eta esan, Euskal Herriko I. Txapelketa ere egun horretan egingo dela, Euskal Herrian federatuta dauden korrikalarien artean. Aurreko urteetako arrakastari aurtengo

nazioarteko izaera erantsirik, esan, apirilaren 19 eta 20an, 300 korrikalarik izena eman zutela zirti-zarta batean eta egun jasotzen ari diren izenak erreserban ari direla jasotzen.

Xabier Azurmendi beka

2004ko martxoaren 8ko Udal Batzarrean, Xabier Azurmendi izeneko Beka abiaraztea erabaki zuen Zegamako Udalak. Honen bidez, Zegamarako interesgarri diren eta izango diren ikerketa gaiak bultzatu eta argitaratzea da helburua. Horiek horrela, 'Zegamako historia' landuko duen beka jarri da aurtengoan martxan, beraz, gai hau lantzeko interesa duenak oinarriak bulegoan jaso ditzake bulego orduetan. Eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 30a izango da.

Hitzaldia maiatzaren 6an

'Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak eta horiei nola aurre egin'. Gai interesgarri honi buruz hitzaldia izango dugu Olarango Gizarte Zentroan datorren maiatzaren 6an iluntzeko 19:00etan, Udal Gizarte Zentrotik antolatuta.

Apaiz Etxeko orubean 12 etxebizitza berri

Apaiz etxeko orubean eta ondoko lursailean 12 etxebizitza, garajeak eta merkatal lokalak eraikitzeke hitzarmena onartu zuen Udal Batzarrek 2004ko martxoaren 8an. Hitzarmena "Ormazpei, S.L." enpresarekin sinatuko da, eta bertan adosatutako puntu garrantzitsuenak hurrengoak dira:

- 70m²tik gora dituen etxebizitzak, gehienez, 1.442,43 euro edo 240.000 pezeta erabilgarria den m²ko prezioa izango du. 15 m² inguru izango dituen lur-azpiko garajeek 15.025,3 euro edo 2.500.000 pezetako salmenta prezioa izango dute, gehienez.

- 'Ormazpei, S.L.' enpresak Zegamako Udalarari 18.030,36 _ edo 3.000.000 pezeta ordainduko dizkio hirigintza probetxamenduaren truke. 'Ormazpei, S.L.' enpresak eraikitze lanak 20 hilabeteko epean amaituko ditu.

- Herritarrek lehentasuna izango dute, beste edonoren aurrean, 2004ko irailarte etxebizitza hauek erosteko. Honenbestez, 'Ormazpei, S.L.' enpresak konpromezu hori hartzen du.

- Udalak "tanteo eta atzera-indarrezko eskubidea" izango du, lehen salmenta ematen denetik ondorengo 5 urteetan. Honenbestez, edozein eroslek etxebizitza saldu nahi badu, aurrez Zegamako Udalarari egin beharko dio eskaintza, eta Udalak urteko Kontsumoen Gaietako Prezioen Igoera gehituta ordaindu beharko lioke etxebizitza, hala balegokio.

Eduarne Albizu

Ruben Zabaleta Espainiako txapeldun



Apirilaren 10ean Madrileko Galapagar herrian izan ziren Ruben Zabaleta zegamarra eta Sergio de Lis bere kidea. Bertan junior mailako Espainiako txapelketa ezberdinak jokatzen ziren pistako txirrindularitzan eta "Americana" modalitatean Espainiako txapeldun suertatu ziren Ruben eta Sergio. Bestalde, 'persekuzio olinpiko' modalitatean ere bigarren plaza lortu zuen gure bikoteak.

Zorionak beraz bikoteari eta bereziki Rubeni, gure herriaren ordezkari bikaina suertatu baitzaigu.

XX. Santa Kruz proba

Apirilaren 18an korritu zen kadeteen mailako XX. Santa Kruz froga Zegaman. Goizaldean eguraldi koxkorra agertu zen eta haizeak nahiko arazo eman zien txirrindulariei. Frogan 112 txirrindularik parte hartu zuten eta baztazbesteko abiadura 34,690 Km/h izan zen. Hona hemen txirrindu frogako sailkapena: 1go: Eizagirre Illaramendi, Urko (Altuna auto) 1:24:45, 2.: Bravo Oiarbide, Garikoitz: 1:24:45, 3.: Olea Larrauri, Hasier. 1:24:45. Sailkapena taldeka: 1.: Garmendia Tejas: 4:16:16, 2.: Orako T.E.: 4:17:09, 3.: Tximela Kubota: 4:17:38.

Tartalo elkartearen arrantza lehiaketa

Martxoaren 19an Tartalo Elkartek arrantza lehiaketa egin zuen herriko gaztetxoaren artean eta hona hemen irabazleak: 1. Unai Arakama (3 amuarrain), 2. Jokin Otaegi (2 amuarrain), 3. Unai atxa (amuarrain 1).

jakintzaikastola



Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

☎ 943 16 05 40 - 943 16 07 90

ordizia@ikastola.net

Batxilergoa Jakintza ikastolan

Zientifiko teknikoa
eta Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Gertuko harremana eta
jarraipenarekin emaitza bikainak
lortzen ditugu



jakintzaikastola

Unanue
70 URTEURRENA
1934 - 2004
ORDIZIA - BEASAIN

70 urte
goierritarrak goxatzen!



Inersoko oporraldi kanpaina

Dagoeneko irekita dago Inersoren 2004-2005 denboraldian oporretara joateko programa. Beste urte batzuetan joan direnek etxean jaso dute eskaera orria eta aurtan

lehenengo aldiz joan nahi dutenek udaletxera jo behar dute gizarte zerbitzura, asteartetan 12:15etik 13:45era. Apirilaren 30era bitarteko epea dago horretarako.

Lierniko Ama Birjina erakusketan

Lierniko Ama Birjinaren irudia Gipuzkoako beste Ama Birjinen irudiekin batera, Goizaitegiak antolatu duen erakusketa batean egongo da ikusgai Donostian, ekainaren erdi aldera bitartean.

Kontenedore berria

Goierriko herri guztietan bezala arropa biltzeko edukiontzia jarri dira herrian eta horrekin batera plazara ailegatu baino lehenagoko bihurgunetik frontoi aldera pasa dira guztiak.

Iñaki Ugaldé



Jubilatuen irteera, Gipuzkoako kostaldera

Zahar Egoitzatik, Gipuzkoako kostaldera irteera egingo dute maiatzaren 11n. Goizeko herriko plazatik abiatuko dira. Bazkaria, Zestoako Arozena hotelean izango da. Izena aurrez eman behar da.

'Hitzak patriketan'

Gaur, apirilak 23, herri antzokian, arratsaldeko 5,30etan, 3 eta 6 urte bitarteko neska-mutilentzat, 'Hitzak patriketan' antzezlanaren aurkeztuko dute Iñaki Beraetxe eta Aitzpea Goenaga aktoreek.



Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

Gazta Eguna maiatzaren 2an

Gazta Egunaren 7. edizioa maiatzaren 2an ospatuko da. Urteroko moduan, maiatzeko lehendabiziko igandean Idiazabal, bere izena daraman gaztaren hiriburu bihurtuko da. Aurten, plazako zubia berritzeko egiten ari diren obrak bitarteko, antolatzaileek jaia berrantolatu beharra izan dute.

Euskal Herri osotik etorritako artzainen postuak plazan egongo dira aurten. 20 artzainek jarriko dituzte postuak. Horietan gazta doan dastatu eta erosteko aukera izango da. Aurten berriro ere bisitariak gazta onenaren eta postu dotoreenaren saria emateko aukera izango dute. Horretarako mahaiak plaza parean Txomenaneko parkearen sarreran egongo dira.

Parkea, lehendabiziko aldiz, Gazta Eguneko ekitaldietarako erabiliko da. Bertan ardi moztea nola egiten den erakutsiko dute eta gatzak nola ketzen den ikusi ahal izango da. Horretarako, txabola berezia prestatu dute antolatzaileek. Gainerako produktuen postuak frontoi zaharrean egongo dira. Han mota guztietako jakiak eta bestelako gauzak erosteko aukera izango da.

Gaztaren zazpigarren egunean Ondramuñoko Antonio Imazek eta bere emazteak jasoko dute omenaldia. Udalak, urtero, herrian artzain ibiltakoen lana eskertzen du ekitaldi horren bitartez.

Aste barruko ekitaldiak

Gazta Egunaren egitaraua aste barruko ekitaldiekin osatuko da. Iker Markinez sukaldariak, gaztak sukaldean duen balioari buruzko hitzaldia emango du eta gaztarekin plater bat prestatuko du (apirilak 27, 18:30ean Arretxe Elkartean). Idiazabalek turismoan duen garrantziari buruzko hitzaldia ere antolatu dute. Goiturreko eta Jaurlaritzako ordezkariak hartuko dute parte (apirilak 30, 19:30ean Artzai Gaztaren egoitzan).

Mami txapelketa

Herritarren bosgarren Mami txapelketan parte hartu nahi dutenek apirilaren 23rako eman behar dute izena Udaltxeari. Mamiak apirilaren 27an aurkeztu behar dira, arratsaldeko 7etan, Arretxe Elkartean. Parte hartzen duten guztiek 30 euro jasoko dituzte. Irabazleak saria eta 90 euro eskuratuko ditu. Aurten irabazleak ez du Herri afari-rako mamirik egin behar.

Atletismoan bikain

Eskolaz kanpoko kirolean, atletismoan batez ere, emaitza onak lortzen ari dira herriko gaztetxoak. Idiazabalgo krosetan erakutsi zuten beraien maila eta azken aste hauetan pista-ko frogetan egindako lanarekin berretsi egin dute maila on hori. Jon Aranburuk, Maialen Jauregik eta Maialen Aseginolazak Gipuzkoako txapelketan parte hartu dute. Maialen Aseginolazak apirilaren 3an Elgoibarren 60 metroko frogan lehenengo postua eskuratu zuen. Urtean zehar hurrek eta entrenatzaileek egindako lanaren uztia jasotzen ari dira.

Asteburuko partidua

Larunbaterako kirol agenda:

Herri Kirolak: Idiazabal Ataunen aurka (Ataunen 10:30etan). Neska eta mutil benjaminak arituko dira.

Areto futbola: Idiazabal - La Salle B (Zelaan 11.30etan).

Erregionalak gora

Arizkorretan aritzen diren futbol taldeak ligako azken txanpan sartu dira. Erregionalei bi partidua geratzen zaizkie liga bukatzeko baina dagoeneko lortu dute erregionaleko lehenengo mailara igotzea.

Herri kirolak

Idiazabalek ordezkaritza izango du Euskal Herrien arteko euskal jokoen lehendabiziko topaketan. 12 herritarrek, sei neskak eta sei mutilek, osatu dute taldea eta maiatzeko lehendabiziko asteburuan Andoainen egingo den kanporaketan parte hartuko dute. Taldea Artzai Gaztaren alboko lokaletan ari da entrenamenduak egiten.

Herri afaria

Maiatzaren 1eko Herri afarira joan nahi dutenek apirilaren 27a baino lehen erosi behar dute txartela. Mujika eta Xume tabernetan daude salgai 16 euroren truke. Afarirako

menua: pikatxa, arkumea entsaladarekin, gazta menbrilloarekin eta mamia.

Xabier Urteaga

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 - BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

III. San Ixidro pala

Ligaska fasea pasa den aste-buruan amaitu zuten. Aste-buru honetan 8 bikote onenen arteko kanporaketak jokatu dira. Finalaurrekoak maiatzaren 8an eta finala maiatzaren 15ean izango dira.

Bola

Goierriko txapelketa: apirilaren 3an, Gabirian Xepeño Agirrek irabazi zuen eta 2. Martxeliño Agirrek egin zuen. Martxoaren 27ko Segurako saioa Martxeliño Agirrek irabazi zuen eta 2. Jokin Izagirre geratu zen. Sailkapen orokorrean, Xepeño 3. geratu da eta Martxeliño 5.

Gipuzkoako erregularitate txapelketa ere amaitu da. Xepeño 5. geratu da, Martxeliño 6. eta Antonio Agirre 10. Hirurak daude Euskadiko txapelketarako sailkatuak (maiatzaren 9an, Araban).

Goierriko ehiz txapelketa

Apirilaren 3an jokatu zen Zaldibian txakurrekin egiten den Goierriko txapelketan. Joxe Migel Aldanondok 'Lai' txakurrarekin 2. egin zuen, 4 eper eta faisai bat botata. 60 urtetik gorakoetan Xepeño Agirrek irabazi zuen 'Dik' txakurrarekin, eper eta faisai bana botata. Biak, udazkenean jokatu den Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira.

Eskualdeko jubilatuen txapelketak

Apirilaren 16an, Beasainen jokatu den jubilatuen herritarren emaitza aipagarrienak: **Botean**, Silvestre Aldanondo eta Gregorio Izagirre txapel-dun geratu ziren. **Igel jokoa**, Inazio Erauskin eta Patxi Imaz txapeldunorde. **Tutean**, Joxe Urbizu eta Joxe Palacios izan ziren irabazleak. **Muse-**

Santakruz ospakizunak beheko barrioan

Maiatzaren 2a:

XXX. Gurutze Deunaren txirrindulari proba. Segurako txirrindulari elkarteak antolatuta, Jabier Ormazabalen oroimenez, jubeni mailako proba korrituko da. Arratsaldeko 4etan Jermanenetik ir-tenda, 18-25 aldera amaituko da leku berean.

Maiatzaren 3a:

Meza eta mokadutxoa. Iluntzean meza, Beheko kurtzan, auzoan hildakoen alde. Ondoren bokadutxoa, udalaren laguntzaz.

Toka txapelketa. Jarraian,

an, Joxe Luis Etxeberriak eta Joxe Ariztimuñok 2. egin zuten. **Brixkan**, Xabin Aldanondok eta Eulio Albusik ere 2.

Hitzaldia. Gaur, apirilak 23, asteko 2. hitzaldia. Gaia: 'Autoestimaren garrantzia'. Kultur etxean, 19:00etan.

Urteko batzarra. Atzeratutako batzarra, apirilaren 25ean, 13:00etan izango da.

Futbola

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Hernani. Zapatuan, 11:00etan. **Jubeni-lak:** Segura-Ilintxa. Zapatuan, 16:00etan.

Labur-labur

● **Odol ematea.** Bihar, apirilak 24, 17:00etatik aurrera, urteko lehen odol emanaldia osasun etxean.

● **Inauterietako hartza.** Bi urtetan Askaindik ekarri izan den hartza berrina, baina beltza, ari dira egiten Iparraldean Segurarako. Kosteak, udalak ordainduko du.

● **Txanbolinpe.** Barrutik ber-ritzeko proiektua erredaktatzen ari da herriko arkitektoa.

● **Argindarraren kableak.** Kale Nagusian lur azpian sar-



herri mailako toka txapelketa, Jermaneneko garaje aurrean. Trofeoak lehen emakumezko eta gizonezkoarentzat.

Auzo afariak. Zopajale elkartearen urteroko afaria. Izenak aurrez eman behar di-

ra Jermanenen. **Erdi aroko afaria.** Plaza zaharreko lagunek antolatuta, ertaroko jantziez mozorroturik, antonkale aurreko plaza zaharrean. **Antonkalenen** urteroko koadri-la afaria.

Iparra-Hegoa VI. margo txapelketa

Martxoaren 27an burutu zen aire libreko pintura txapelketan 20 margolarik parte hartu zuten. 1go saria, Agustin Vaquerok (Zaldibia) jaso zuen. 2. saria, Carlos Espigarentzat (Bilbo) izan zen. 3. saria, Piedad Santamariarentzat (Leioa). Akzesita, Irkus Robles (Lapurdi). Partehartzaileen artean, Miren Gallastegi eta Luis Azalza herritarrek aritu ziren. Pintura lanak, herriko taberna eta dendetan daude ikusgai eta salgai.

tzeko proiektua martxan jar-tzen ari da Udala.

● **Izartu programa.** Udalak, Eusko Jaurlaritzaren programan parte hartzeko bere proposamena egin du. Hauek, proposamen horren kalitatea baloratu ondoren, bere laguntza ekonomikoa emango du-te. Programaren kostea, 7.549.828 eurokoa da. Erabakia ekainaren 22an jakinaraziko da.

● **Nazioarteko sega txapelketa.** Bideoa salgai, 6 eurotan, udaletxean edo Ardi-xarran.

● **Inserio.** 2004-05 denboraldirako adinekoen oporraldi programa zabalik. Lehen aldiz eskaera egin nahi duenak, udaletxeko gizarte zerbitzura jo behar du, asteazken eta ostiraletan, 8:30etik 13:45era. Apirilaren 30era arteko epea.

● **Ikastaroak.** Ardo dastaketa. 19 lagun hasi dira aste honetan. Zopajalen elkartzen di-

ra astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Datoren ostiralean amaituko da. Ordenagailu eta argazki ikas-tarotarako izen emate epea, gaur, apirilak 23 amaituko da.

● **Ardixarraneko ikuskarrien aurkezpena.** Apirilaren 30ean, 18:00etan komunikabide eta herritarrentzat. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Mercedes Rodriguez, turismo zuzendaria izango da.

● **Mendi irteera.** Maiatzaren 2an, Krutzetako gainatik Ori-xol-Urkiola. Egun osorako. Irteera, goizeko 8etan, plazan. Autobusa izango da.

● **Iparra-Hegoa zenbaki sarituak:** 1: 4966, 2: 3060, 3: 5245.

● **Sasieta.** Altzari eta traste zaharrak ateratzeko egunak: apirilaren 28a, maiatzaren 12a eta 26a eta ekainaren 9a eta 23a.

Joseba Telleria

Mendi ibilaldia maiatzaren 30ean

Ataungo txokoak ezagutu asmoz, bi urtez behin Ataun Kirol Elkartek eta Oargi Troskaetak 4 ordu-4 ordu eta erdiko mendi ibilaldia antolatzen dute. Aurtengo ibilaldia maiatzaren 30ean, igandean, goizean burutuko da.

Ibilbide nagusiak gutxi gora-behera, 4 ordu-4 ordu eta erdiko iraupena izango du. Parte hartu nahi duten mendizaleek honako ibilbidea egin beharko dute: Zelaieta, Lizardi, Ubarrieta, Izator, Zentralla, Irubide, Agerre, Agerretxiki, Iraan, Urrestarazugarakoa, Olata, Bedama, Aralegiko Zelaia, Sanzegisaletxe, Amilleta, Atakabiko koba, Intzartzu, Lasarteko lepoa, Amundarain, Saletxeberrikoekarra, Legarregiturri, Laparra, Umarki, Otadizelai, Urkola, Barrenetxea, Ajarresta, Otxotxo, Berrarain, Errotaberri, Goraetxea, Bidarte, Errotakale, Zelaieta.

Aukerako ibilbidea berriz, ordu eta erdi-2 ordu eta erdiko iraupena izango duenak, honako ibilbidea izango du:

Zelaieta, Udaletxea, Garaialde, Mendiolape, Bordaberri, Okarizti, Hilerria, Leku Eder, Haizeleku, Arrizabalaga, Saletxeberriburu, Esnaolaetxeberri, Lasarteko lepoa, Beingo Zelaia, Amundarain, Saletxeberriekarra, Legarregiturri, Laparra, Umarki, Otadizelai, Urkuola, Barrenetxea, Ajarresta, Otxotxo, Berrarain, Errotaberri, Goraetxea, Bidarte, Errotakale, Zelaieta.

Gipuzkoako txapeldunak pilotan

Joan zen hilean, larunbat arratsalde batean, Astigarra-ko pilotalekuan infantil mailako Gipuzkoako esku pilota txapelketako finala jokatu zen. Bertan Loinazpeko taldearen izenean, hiru ataundarrak parte hartu zuten: Eneritz Aizpurua, Eluska Aierbe eta Enara Almeida gaztetxoak. Aurkariak, Azpeitiko Ikas- mendikoak izan zituzten. Markagailua nahiko parekatua egon bazen ere, azkenean gure ordezkariak jantzi zuten txapel beltza.

Aita Bonifazio Ataunen liburuxka

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak Bidegileak bildumaren barruan, Sabiaga baserrian jaio zen Manuel Apalategi 'Aita Bonifazio Ataun' jaunari buruz idatzitako liburuxka argitaratu berria du.

1901. urtean jaio zen kaputxino honen bizitzaren nondik norakoen berri, Jesus Aizpurua Barandiaran herritarrek irakurketara erraztu eta arintzen duen moduan eskaintzen digu. Manuel Apalategi idazle, kultur bultzatzaile eta euskaltzale izan zena, 1984. urtean hil zen.

Liburuxka honen 100 ale herritarren artean debalde banatzeko ditu udalak. Jaso nahi duenak Udaletxeko bulegoan du aukera, aleak agortu bitartean.

Bertso onenaren saria

Iban Urdangarinentzat

Hilaren 18an jokatu zen Gabiriako Osinalde saria. Antolatzaileek aditzera eman zuten, 120 bat lagun bildu ziren Osinalde elkartearen. Iban Urdangarin ataundarrak saio txukuna egin zuten, horren adibide edo, saioko bertsorik onenaren saria berriz eman ziotela.

Bertso paperetan sarituak

Sabino Arana Kultur Elkargoak antolatutako bertso-paperen lehiaketan hiru ataundarrak saria jaso dute. A kategorian, Lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailan hiru lehen saria Joxemiel Barandiaran Herri ikastetxeko ikasleentzat izan dira: lehen saria Ainhoa Begiristain, bigarren Ander Larrión eta hirugarren Iñaki Dorronsoro. Saria eskuratu duten ikasle bakoitza beste bi lagunekin batera, ekainaren 24tik 27ra bitarte Port Aventura joango da.

Andoni Munduate

Martxoaren azken egunetan Kantabrian burutu zen Unibertsitate-Eztabaidako Ligan Donostiako Deustuko Unibertsitateko taldeak Ikerketa lan onenari saria lortu du bigarren aldiz. Talde irabazlea osatzen dutenen artean, Andoni Munduate herritarra ageri da. Aurtengo eztabaidagaia telebista izan da. Ligan parte hartu duten 58 taldek bere aldeko edota kontrako jarrerari eutsi behar izan die. Gai honi buruzko lan onenaren saria lortu dute Andoni eta bere taldekideak, 6.010 euro hain zuzen ere.

Traste zaharren bilketa

Apirilaren 7 eta 21ean burutu zen moduan, maiatzaren 5 eta 19an eta ekainaren 2 eta 16an, hurrenez hurren, Ataunen egingo da altzari, elektragailu eta baliorik gabeko traste zaharren bilketa. Horretarako bezperan eta iluntzeko 8etatik aurrera ater behar dira traste zahar hauek. Aldez aurretik, Fomento de Construcciones y Contratas S.A. enpresaren 943/161590 telefonora deitu behar da, trasteak zein puntutan utziko diren adierazteko.

Jubilatuen txapelketa

Martxoaren 2tik 13ra bitarte Atsedan Tokin jokaturako txapelketen emaitzak honako hauek izan dira: **Eskoban:** 1.go Maria Begiristain eta Pilar Begiristain, 2. Jose Sanpedro eta Iñaki Goikoetxea. **Musean 4 erregetara:** 1.go Jazinto Begiristain eta Nikolas Munduate, 2. Jose Munduate eta Bixente Matxain. **Musean 8 erregetara:** 1.go Jazinto Begiristain eta Nikolas Munduate, 2. Jesus Urbiztondo eta Joxe Baztarrika. **Punttuan:** N 1.go Jose Sanpedro eta Iñaki Goikoetxea, 2. Pili Barandiaran eta Elena Auzmendi. **Seiko urtean:** 1.go Rosario Urdangarin eta Miren Goikoetxea, 2. Joxe Rezola eta Bittoriano Lizarraga. **Tutean:** 1.go Antonio Goikoetxea eta Joxe Rezola, 2. Jazinto Begiristain eta Luzio Goikoetxea. **Botean:** N 1.go Fernando Martin, 2. Joakin Aldabe. **Zapoon:** 1.go Joxe Munduate, 2. Nikolas Kaiero. **Tokan:** 1.go Joxe Munduate eta 2. Joakin Aldabe.

Doltza Barandiaran

Euskararen erabilerak behera egin du

Sei elkarteak kale neurketak egin zituen azaroaren 19an eta 22an

Beasaingo kalean zenbat euskara erabiltzen den jakiteko neurketa egin zuen Sei elkarteak 2003ko azaroaren 19an eta 22an. Herritarrek momentu horietan zein hizkuntzatan ari ziren jaso dute Sei elkarte-koek.

Hortik ateratako ondorioa zera da: momentu horietan, beasaingarren %25,68a ari zela kalean euskaraz hitzketan. Euskara dakitenen portzentajetik urruti, izan ere, beasaingarren %58ak euskaraz bai baitaki. Hau da, dakitenen erdiak baino gutxiago erabiltzen dute euskara kalean.



Sei elkarteak emandako datuen arabera, euskararen erabilera hori jaitsi egin da azkeneko bi urteotan.

2001ean ia %30ak hitz egiten zuen kalean euskaraz. Hori bai, euskararen erabileraren kale neurketa egin zen lehe-

nengo urtetik hona, 1993tik hona, %6an gehitu da euskararen erabilera.

Zonalderik euskaldunena, Zabalgunea da. Ondoren, Igartza eta Alde Zaharra. Erdaldunena, Ezkiaga auzoa.

Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, nahiz eta azkenengo kale neurketatik portzentajeak behera egin duen, ia %10ean. Gutxiak erabiltzen dutenak, adinekoak dira. Haurrak tartean direnean, helduek ere gehiago hitz egiten dute euskaraz. Gizonezko eta emakumezkoen artean, emakumezkoak dira euskara gehiago erabiltzen dutenak.

Dantzari Txiki Eguna

Aurtzaka Dantza Taldeak antolatu du apirilaren 25ean ospatuko den Dantzari Txiki Eguna. Beasaingo kaleetan euskal dantzaz gozatzeko aukera izango da. Hainbat herritako 4 eta 14 urte bitarteko dantzari txikiak izango ditugu ikusgai: Urretxuko Lurra, Ordiziako Jakintza, Erreterriako Ereintza, Zaldibia-ko Iztueta, Lazkao-ko Oin-arin, Legorretako Irrintzi, Ataungo Otsoak eta Beasaingo Ostadar eta Aurtzaka taldeek parte hartuko dute. Txistulariz edo trikitilariz lagundutako hainbat saio eskainiko dizkigute. Goizaldeko ibilaldiarekin emango diote hasiera. Eguerdian, Loinazko San Martin plazan taldeen alardea ospatuko da. Eta bazkalostean, egunari amaiera emateko, dantza-ikuskizuna eskainiko dute.

Haur eta gazte dantzaokoa

Loinatz jaietako Dantzaokoa parte hartu nahi duten 6 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteek, maiatzaren 3a baino lehen eman beharko dute izena Txelotxe ludotekan, Berritsu Ludotekan edota ikastetxean eta abestia zinta batean edota CD batean eraman behar dute. Talde bakoitza 3-6 lagunez osatua egongo da eta abesti edo dantza bat baino ez da onartuko. Aukeraturako musika euskaraz izaten saiatu behar da. Ekitaldia maiatzaren 30ean burutuko da 18:00etan Joan Iturralde plazan.

40. Argazki Lehiaketa Beasaingo Saria

Argizpi Argazkizale Elkarteak eta Aizkorri Mendizale Elkar- teak antolatua da. Gaia librea da eta lanbidez argazkilariak ez diren zaletuek dute parte hartzeko aukera. Zuri-beltzean eta koloretan gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango dira egi- le bakoitzeko. 30 x 40 edo 40 x 50 zm.ko kartoiez sendotuta. Lanak jasotzeko azken eguna maiatzaren 3a izango da Aizko- rri edo Argizpi Elkartearen.

Beasain Jaietan urtekaria

Loinatz Jaietan kalean izaten dugun Beasain Jaietan Urtekari- rako norbaitek oraindik ere artikuluren bat edo argazkirik en- tregatzeko edukiko balu apirilaren amaiera baino lehen egin beharko luke. Lanak disketean aurkeztea eskatzen dute.

Jubilatuen mendi irteerak

Beasaingo Gizarte Ongizate Sailak antolatuta eta Aizkorri Mendizale Elkartea eta Gurutze Gorriaren laguntzarekin men- di irteerak izango dira jubilatuentzat. **Apirilak 24:** Beasain, Olaberria, Ojarbi, G.A. Gorrotxategi, Idiazabal, Beasain. **Maiatzak 8:** Beasain, Lazkao, Ataun (San Martin) Lazkao- mendi, Oiangui, Beasain. Izen-emateak, irteeraren aurreko os- tegunetan 16:30etatik 18:00etara Erretiratuen Etxean.

Nekane Altuna



Biztanleriaren gora beherak

2003. urtearekin alderatuta 2 biztanle gutxiago dira orain Legorretako herrian. Iaz, 1364 lagun ziren errolda agirian, eta aurten, berriz, 1362. Altak 50 izan baitziren, 28 gizonezko eta 22 emakumezko, eta bajak, aldiz, 52, 31 gizonezko eta 21 emakumezko. Biztanle kopuruaren gora beheren arrazoia honakoa da:

Altak: Jaiotzak: 9.

Bizileku adaketa: Beste herri batetik: 39. Atzerritik: 2.

Bajak: Heriotzak: 12.

Bizileku aldaketa: Beste herri batera: 39. Atzerrira: 1 Kontuan izan urtarilaren hasierako datuak direla.

Jubilatuak karta jokoa

Apirilean zehar jokatu diren karta txapelketetan irabazle suertatu zirenak, joan zen ostiralean, hilaren 16an, Beasaingo beste txapelketa batean jokatzeko aukera izan zuten. Honako hauek izan ziren

postu hori lortu zutenak:

Musean 8 erregetara: Patxi Esnaola eta Cristina Goikoe-txea.

Musean 4 erregetara: Jesus Iturrioz eta Lorenzo Aménabarro.

Eskoban: Demetrio Garmendia eta Francisco Goikoe-txea.

Tutean: Felis Bombin eta Nicolas Pazos.

Puntuatzen: Leonita Maiz eta Eusebi Iturrioz.

Txintxonon: Cristina Goikoe-txea.

Jubilatu eta pentsionista hauek guztiak izan ziren Beasainen, baina zortea ez zuten alde izan eta inork ez zuen ezer irabazterik lortu. Hala ere arratsalde atsegin igarotzeko aukera izan zuten bertaratuta ziren guztiek.

Odol emaileen emaitzak

Martxoaren 23an, odola ematera 56 lagun joan ziren, eta hauetako 4 berriak izan ziren.

Ekhi Zugasti Espainiako kros txapelketan

Ekhi Zugasti Irizar legorretarra Caceresen izan zen joan zen martxoaren 21ean, Espainiako Kros txapelketan. Infantil mailan aritu zen, eta 5.000 metrotan 30. postuan geratu zen, Euskadiko lehen atleta izateaz gain. 19 minutu eta 12 segunduko marka lortu zuen, parte hartu zuten 152 atleten artean.

Jubenilentzako txirrindulari proba

Bihar, larunbata, jokatu da Jubenilentzako 49. Legorreta Txirrindulari Proba. Arratsaldeko 4etan hasiko da 92,5 kmtako proba, eta 6ak eta 20 minutu aldera bukatzea dago aurreikusita. Antolatzailea Bilkoin K.K.E. da, eta babesleak berriz, Legorretako Udala eta Kutxa.

Patxi Ezkiagaren olerki liburu berria

Patxi Ezkiaga legorretar idazleak olerki liburu berria plazaratu zuen joan zen hilean Concetta Probanza margolariaren kuadroetan oinarriturik. Probanzak bere margolanen erakusketa jarri zuen Urretxuko pub batean, Ezkiaga txundituta gelditu eta kuadro haietan oinarrituriko poema batzuk idatzi zituen.

'Mahats denboran da' Probanzaren margolanak eta Ezkiagaren olerkiak dakartzen liburuaren izenburua. Gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenak ere eskaintzen ditu liburuak.

Organo eta soprano kontzertua

Bihar, apirilak 24, Organo eta Soprano kontzertua izango da arratsaldeko 8etan Salvador Deunaren Parrokian. Organojolea Esteban Elizondo donostiarra izango da, eta Sopranoa, herri bereko Arantza Ezenarro.

Zelai Amenabarro



Ur eta zabor kobraketa aldaketak

2004ko Otsailaren 12an ospatutako batzarrean Altzaga-ko 2004rako aurrekontua onartu zen, beronen zenbatekoa 424.000_koa delarik.

2004. urtetik aurrera uraren eta zaborraren tasen kobrantza maiztasuna aldatzea erabaki zen, honela geratuko di-

relarik:

● Uraren erreziiboak hiru hilabeteko pasatuko dira.

● Zaborraren erreziiboak sei hilabeteko pasatuko dira. Zabor eta Ur zerbitzuen tasen igotzea erabaki da, arrazoia zerbitzu hauek emateak udalari sortzen dioten defizita.

Datuak ondorengoak dira:

Zaborrak: Zabor zerbitzuko defizita: 2003ko kostuak: 5680 euro, 2003ko sarrerak: 2543 euro. 2004rako onartu diren tasen zenbatekoak honakoak dira: Etxebizitza bakoitzeko tasa urtean 48 euro, industriak, tabernak, e.a. tasa urtean 144 euro.

Ura: Ur zerbitzuko defizita: 2003ko kostuak: 21637 euro, 2003ko sarrerak: 5228 euro. 2004. urterako onartutako tasa berriak: Etxebizitzetan: Ur

kontsumoa 0,45 euro m³ bakoitzeko. Isurketa kanona ur kontsumoaren %30a. Kontadorearen kontserbazioaren urteko kuota 8 euro. Hiruhilabeteko gutxiengoa 30 m³.tan ezartzen da.


Ibilgailuen zerga

Bestetik herritarrei gogorazi nahi diegu Ibilgailuen Gai-neko Zerga borondatezko epean ordaintzeko azken eguna Apirilaren 30^a izango dela.

Imanol Lazkano bertsolariaren testigantza: Lazkao Txikiren aurpegi ezezaguna

Joxe Mieli buruz asko hitz egin eta idatzi da lehen ere, baina bere lagun izan gineno eta hain gertutik ezagutu genueno, nik uste dut, ahaztu ezin ditugun une eta pasarte bereziak utzi zizkigula gure oroitzapenean betiko itsatsiak.

Niri iritziz, bere burua ezagutu gabe mundu honetatik inor joan bada, hori Lazkao Txiki izan zen. Lazkao Txiki, hitz batean esanda, ez zekien zenbateraino handi zen. Lazkao Txiki ez zekien Euskal Herriak zenbat maite zuen. Lazkao Txiki ez zekien bere bertsokerak, bere umoreak eta bere irudiak bertsolaritzan zenbat balio zuen. Lazkao Txiki ez zekien sendikoek eta ilobek zenbat maite zuten. Ezta ere bere bertso lagunek zenbat miretsi genuen eta maite. Bere burua ez ezagutze horrek sortzen zion halako mesfidantza puntu bat sendiarekiko eta lagunekiko, eta orduan, bere ingurukoekin konfesatu beharrean, almodarekin konfesatzen zen, eta almoda horrek oso kontu beltzak kontatzen zizkion nonbait, une triste eta gogorak pasaraziz. Penagarria da kanpora begira hainbeste umore jarri eta irribarre saldu zuen gizona barrura begira ia



Imanol Lazkano 'Aho bazarrik gabe' liburuarekin.

beti negarrez bizi izana. Artista asko bezala, berezia eta bakarrik bizi beharrekoa zen Joxe Miel. Bere buruari erakutsi edo demostratu nahi zion, inoren beharrik gabe, bere buruaren jabe izateko gai zela, eta nik esango nuke apustu hori irabazi zuela. Bakarrik utzita, beste asko baino txukunago ibili zela, baina bakardade horrek bere zigorra ere ezarri ziola.

Bere txikitasuna bertsotarako gai garrantzitsu bilakatu zen, bai beretzat eta baita guretzat ere. Gure aldetik abusatzeraino ere bai inoiz, baina berak ere bere buruari askotan egin zion barre jende aurrean. Bazirudien bere txikitasunaren arazoa gaintututa zuela, baina ez zen egia. Bere txiki eta kaxkar izatearen

arantza ez zuen inoiz atera. Horrek inork uste baino gehiago sofriarazi zion Joxe Mieli.

Ez dakit laurogeita bata ala laurogeita bia izango zen. Bilboko Aste Nagusia zen. Amuriza, Lopategi, Lazkao Txiki eta laurok kantatu genuen Arenaleko kioskoan. Saioa nahiko polita joan zelakoan nago. Gero laurok Bilboko parte zaharrean bazkaldu genuen, ezin umore hobean. Bizkaitarrak agurtu eta etxera abiatzean, biok kotxeak aparkamendu berean genituen Arenalean, udaletxeko izkinan zegoen aparkamendu txiki batean. Ni kotxean sartuta, eta nire kotxearen ezkerreko atea itxi gabe zegoenez, Joxe Miel beso bat haren gainean eta bestea kotxearen

gainean zuela, izan genuen elkarrikketa sekula ez dut ahaztuko.

Ordura arte hain umoretsu eta gizon alai zirudien Joxe Miel trumoi eraso batek aldatu balu bezala mudatu zitzaidan, zuritik beltzera. "Hau bukatu duk, Imanol", izan zen lehenengo hitza, "niri ez gehiago bertsotara deitu". Ni izutu egin ninduen guztiz, zerbaitetan huts egin niola kezkatuta. Lehenbizi esan niona izan zen, "nik zertan huts egin diat, Joxe Miel?" Eta erantzun zidan:

- Ez, ez, hirekin ez diat ezer. Alderantziz, hirekin denda konfidantzak esanarazten zidak hau guztia. Eta nerekin ez gehiago kontatu. Nik herriari esan beharrekoak esanda zauzkat eta ni utzi pakean!

Horrela hasi zitzaidan! Eta orduan, "zer esaten ari haiz?" esanda, alkandoraren patrikan zuen agenda kendu nion, esanez:

- Ikusten al dek hemen zenbat orri dagoen zikinduta? Horrek esan nahi dik oraindik herriari ez dizkioala esateko denak esan, eta Euskal Herriaren zati bat hire bertso egarritz dagoela!

Baina egun hartan alferrik zen.

- Euskal Herria nere bertso egarritz? Euskal Herriak ez dik nere bertsorik behar. Euskal Herriak ni behar natxiok,

GERTU aholkularitza
txekin
ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOLOKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

ARRIETA

JATETXEA


943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

**"Kontura
gaitezen
zeinen abila
zen jendea
gozarazten,
bera sufritzen
bizi zen
bitartean"**

*Lazkao Txiki
abila zen
jendea
gozarazten,
bera
sufritzen bizi
zen
bitartean.*

Arg.:
Fotoetxe



baina hik ere bai Euskal Herria. Hik darabilzkian burutapen horiek buruan dituala herri ibiltzeari utzi eta etxean gelditzen bahaiz, orduan bai sentituko haiz baztertuta eta sobratua. Nik herri batetik hirekin joateko deia jasoz gero, lehen bezalaxe deituko diat. Ezetzik ez ieza-dak esan, kotxearekin etxera bertara joanda aterako haut eta. Orain joan hadi etxera, ahal baduk lo egin ezak lasai, eta hitz egingo diagu".

Horra hor Lazkao Txiki-ren irudi ezkorra. Kontura gaitezen zeinen abila zen jendea gozarazten, bera sufritzen bizi zen bitartean.

Sekula barrutik kendu ez zuen beste pena bat zen, bere bertsokera gogoena bertso sakona izan eta herriak eta gaitzaitzaileek zeinen aukera gutxi ematen zioten bere sakontasuna erakusteko, beti irrigarriak jarritz, gai sakonetan balioko ez bazukeen bezala. Gai sakonetan, izatez hain sentibera izanda, aparteko dohainak zituen, baina ez zitzaien aukera askorik eman. Horrek ere inoiz haserrarazi zuen.

Dena den, kanpotik begiratuta, zoriontsu bizi zitekeela bazirudien ere, bere bizi-tzak edo, beharbada, bere bu-ruak asko zigortu zuen gizona izan zen Euskal Herriak puska batean ahaztuko duen artista handi hura.

Imanol Lazkano ('Aho bizarrik gabe' liburutik hartua)

parra eta burla egiteko. Nere kontura nahiko parra egin dik jendeak, baina gehiago ez dik egingo. Horregatik esan diat nerekin ahazteko eta neri ez gehiago deitzeko. Nik ez al zekiat ba zer gertatzen den bertso afari batera joandakoa adibidez? Andre gazte eta neska gazte guztiak nere inguruan nerekin parre egin behar den orduan. Gero bakoi-tza berearekin oheratzeko, neri nahiko parra eginda gero! Ni horrelaxe mespreziatua izan nauk nere bizi-tza osoan. Zer uste duk ba hik, derrigor ezkondu behar zela pentsatu banu nik ere ez nuela andre bat hartuko? Esaera zaharrak dioen *nolako lapikoa halako tapa* izango huen niretzat ere! Akaso ez huen hirea edo beste norbaiten emaztea bezain dotorea izango, baina nola-halakoren bat bilatuko nian. Nere moduko desgraziatu-rik ez gehiago sortzeagatik, mul-

tizahar geratu ninduan!

Ni saiatzen nintzen: "Baina, Joxe Miel! Heure burua nola zigortu dezakek horrela? Horiek ez dituk egiak! Oso oker habil!". Baina alferrik zen egun hartan. Hurrena hasi zitzaidan esaten:

- Guk gure baserrian artoa erein behar zenean, aurreko urteko artaburu onenak aukeratu aurrena, gero artaburu horiei puntako eta ondoko aleak bereizi eta erdiko one-nak ereiten genizkian hazitan. Izadiak hori berez egiten dik. Zuhaitz handienak txikiak zapaltzen dizkik bere azpian hartuta, ihartu arte. Arrain handiak txikia jaten duen bezala, edo animalietan, ar indartsuena nagusi eta eme talde baten jabe. Gizakiak ere horrela egiten dik: erromeria batera joan eta mutilik ederrinak neska ederrenen jabe, eta neska ederrenak mutil ederrenen jabe. Eta gure mo-

duko desgraziatuak beti bazterrera.

Alde batetik, niretzat ohorea zen Lazkao Txiki, konfiantza hartan, bere barruko samin denak azalduz, niregan hustu izana. Baina zin dagit, nire bizitzan pasatu dudana ordu erdi garratzenetakoa pasarazi zidala. Biok negar batean bukatu genuen, elkarri zer esan ez genekiela. Behera begira minutu batzuk pasatu ondoren, pixka bat lasaitu gine-nean, nik hartu nuen hitza eta esan nion: "Joxe Miel, barkatu ezak, baina ez diat gehiago hitzik ere entzun nahi; ez hago hizketarako kondiziotan. Hor esan dituan kontu horiek, denak ez bada ere gehienak, gezurrak dituk. Baina gaur ez dizkiagu eztabaidatuko, horretarako moduan ez hago eta. Gauza bat esango diat ordea: Euskal Herriak hire beharrik ez duela ez duk egia. Euskal Herriak hi behar hau,

Iñausti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

OSTAISKA
Goxoki denda
✕ Goxokiak
✕ Fruitu lehorrak
✕ Izoziak
Hirigoien, 4 LAZKAO

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.
GOIERREIKO ZURAK
Hiribarren, z/g
☎ 943 88 80 23 LAZKAO

'Glosak. Esana zetorrenaz' poesia liburuagatik Tere Irastortzak Espainiako Kritikaren Saria jaso du, euskarazko poesia atalean


Bigarren aldiz, Espainiar Estatuko literatur kritikoeek ematen duten Saria jaso du Tere Irastortzak, euskarazko poesiaren atalean, 'Glosak. Esana zetorrenaz' liburuarekin. 1981ean ere jaso zuen bere lehenengo liburuarekin. Bietan ere, sariak, ezustean harrapatu du zaldibiarra.

Kritikaren bi sari jaso dituzu. Bat 1981ean eta bestea aurten. Nola bizi izan dituzu?

Lehenengo liburua 1980an kaleratu nuen eta 1981ean eman zidaten Kritikaren saria. Lehenengo urte hartan ezjakinean harrapatu ninduen sari hark, Sari hau zenik ere ez nekielako. Orain ere ezjakinean harrapatu nau, behin liburua aterata ez diodalako jarraipenik egiten. Liburua aterata arte oso zentratuta ibiltzen naiz baina behin aterata lasaitasuna hartzen dut. Orduan, egia esan, sari honekin ere ahaztuta nengoen eta ezustea izan da.

Ezusteko atsegina, noski.

Bai, pertsonak ere batzutan behar izaten du harro puntu bat. Halako gauza batek adierazten du liburua ez zegoela hain gaizki. Ni ere nire liburua ona zelakoan nengoen. Denbora asko pasatzen dut liburua argitaratu baino lehen, bost edo sei urte. Konbentzitu samar nagoenean argitaratzen dut liburua eta liburua duina



Tere Irastortza Beasaingo Andramendi Ikastolako zuzendaria da.

zela uste nuen. Baina beste batzuk ere ikustea pozgarria da.

"Ibilbidea eta ahots pertsonal bat lantzeko kementa" saritu dute.

Gauza asko esan dituzte. Baina neurri batean konforme nago. Ni poesia idazten oso gaztetan hasi nintzen eta argitaratu ere nahiko azkar, 1981ean. Nahiz eta Kritika saria jaso, izugarritzko jipoia eman zidaten hemengo gizon handiek. Erreakzio bezala, poesia akademikoa egiten hasi nintzen. Alderdi formala asko landu nuen, gauza homologatua egite aldera. Baina nik asko irakurri izan dut beti eta konbentzitututa nago literatura jolasa dela, dibertimentu bat, baina niretzat ez da helbururik gabeko jolasa. Niretzako apustu edo joko bat badago. Nire apustua da gizatasunaren arazoak edo sentipenak hor txertatzea. Saiatu izan naiz nire bizia eta beste bizi poesia horietan sartzen.

'Glosa. Esana zetorrenaz' liburuaz zera esan da: "Obra berri-tzailea da. Poema landua da, kontzeptuala, hizkuntza ere aski neutroa duena, baina ez zaitu indiferente uzten".

Hemengo poema batzuk Beasaingo Ikastolako DBHko ikasleekin egindako literatur tailer batean hasi nintzen idazten. Letretakoa naizenez, zientziak ez dakit asko eta entziklopediatara jotzen hasi nintzen. Handik abiatuta egiten nituen nire testuak. Baina beste alde batetik, ikusten dut mundu honetan haustura handi bat badagoela zientziaren eta hitzaren artean. Gaur egun oso zaila da zientzia hitzetan espresatzea. Askotan uste dut zientziak jokaten duela, garai batean magiak edo erlijioak jokaten duten papera, bere arrisku berdintsuekin. Gainera konturatzen naiz zientziak hartzen diren gauza asko eta asko direla garatutako metafora batzuk. Iruditzen zait zientziaren dibulgazioan halako faltsukeria bat badagoela. Orduan, nire poesian saiatu nintzen, testu

"Konbentzitu samar nagoenean argitaratzen dut liburua eta duina zela uste nuen. Baina beste batzuk ere ikustea pozgarria da"

zientifikoaren hizkera hotza hartu eta gure esperientziara txertatzen. Irudi berriak txertatzen saiatu nintzen, jendearentzat berez karga poetikorik ez duen hori ematen. Beharbada hortik dator hizkuntza neutroaren gai hori.

Hizkuntza neutro horrekin hautsi nahi izan dut poesia erromantikoaren mitoa. Poesia nia espresatzeko bidea da. Saiatu naiz, konstatazio moduan adierazten sentimenduak.

Beste generoren batera salto egiteko asmorik ba al daukazu?

Poesian gustura nago. Beste lan bat ere erdi bukatuta daukat, gutun bilduma bat. Niretzat literatura, bizitzeko modu bat da, geldit egoteko modu bat. Azken urteetan bizian momentu larriak egokitu zaizkit, Beasaingo Ikastola indartu behar horretan, literatura indarra jasotzeko baliatutak bidea izan da.

Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria

Hil berria den Andolin Eguzkitzaren lekua hartu zuen Tere Irastortzak Euskal Idazleen elkartearen lehendakaria.

Zeintzuk dira Euskal Idazleen elkartearen asmo nagusiak?

Euskal Idazleen elkartearen 2004-2008 plan estrategikoa arekin ari gara. Bi helburu nagusi ditu. Batetik, gure helburua da, euskal idazleen eta euskal pentsamentuaren berri munduan ematea. Web orria ingelesez ere jarriko dugu eta idazle bakoitzaren lagina jarriko dugu ingelesez ere. Horren helburua da, euskaldunak hizpide izatetik hitza hartzera pasatzea.

Bestetik, ekintza asko egin ditugu Idazle elkarte bezala eta lurraldekako idazleekin beste harreman mota bat sortu nahi dugu. Tokian tokiko antolaketa egin nahi dugu. Nafarroan Nafarroakoa, Iparraldean Iparraldekoa... Elkartearen egitasmoak Euskal Herri guztirako dira baina egia da euskararen eremu guztiak ez daudela egoera berean.

Euskal literatura zein egoeratan dago?

Sorkuntza eta ekoizpen aldetik oso egoera onean dago. Ni idazten hasi nintzenean, Euskal Filologia ikasten ari nintzela, jendea hizkuntzari begira bizi zen. Literatura egin behar zen, baina hizkuntza normaltzeko. Azken 10-15 urteetan, euskal literatura bera garrantzizkoa da. Euskal idazle askok, gaztelez edo frantsesez idazten dutenekiko abantaila asko dauzkate. Euskaraz literatura idazten duenak, gaztelez edo frantsesez idatzitakoa ezagutzen da, eta horrekin batera Europako eta mende-



"Euskal literatura sorkuntza eta ekoizpen aldetik oso egoera onean dago".

baldeko literatura asko eza gutzen du. Bigarrenik, euskal idazleak hizkuntz hautapen bat egin du. Elebakarra denak ez du hizkuntz hautapenik egiten. Hizkuntz hautapen bat aukeratuta, mundu ikuskera bat egiten dugu. Guk idazten dugu, munduaren erdigunea ez garela jakinda, beste perspektiba bat ematen digu horrek. Horrek guztiak indar bat ematen digu.

Zer ekoizten den ikusita, literatura ona egiten da. Beharbada oraindik oso garatua ez daukaguna masa literatura da. Harry Potter fenomenoak bezala. Harry Potter ikuspuntu komertzialetik interesgarria da. Baina denborapasa bakarrik ez den literatura sortzeko garaian, euskaldunok oso ondo gaude. Agian, irakurleak falta zaizkigu.

Euskal literatura gutxi kontsumitzen al da?

Aurriritziekin jokatzeko euskaldunok euskaldunoi buruz pentsatzen dugunaz: euskaraz dagoena ez da hain ona izango. Momentu hone-

tan euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai den pertsona asko dago, baina bere aurriritzia da, gu zerbait defenditzen ariko ginen bezala, galea baten aurrean bageunde bezala. Orduan ez dute irakurtzen testuinguru arrunt batean. Ni euskalduna naiz eta zergatik pentsatu behar dut euskaraz idatzita dagoena gaizki dagoela? Are eta gehiago, nik uste dut, gauza askotan antzindariak izan garelako euskaldunak. Testu liburuetan esaterako, euskaraz dauden liburuak, besteeikiko oso onak dira. Egiten duguna sinistea falta zaigu. Posible bada Euskal Herria hain txikia izanik hainbeste txirridulari egotea, zergatik ez da posible izango idazle onak izatea?

Euskal poesia zein egoeratan dago?

Azkeneko 15 urteetan 225 liburu argitaratuko ziren. Euskal Idazleen Elkartearen antologia bat egiten ari gara eta 15 poeta atera nahi genituen. Zerrenda ezin gutxitu ari gara, poeta gehiago daudelako. Euskal poesian azken 15

urteetan, 20-25 poeta oso onak daude. Batzuk ez dira oso ezagunak, beste batzuk ezagunagoak dira beste genero batzuetan idatzi dutelako. Poesia asko idatzi duen jende asko dago. Poesia ona da, baina nik uste ez daukagula askotan espazio nahikorik. Komunikabideetan adibidez, ez daukagu pilotak edo futbolak duenik. Kulturak oso orri gutxi dauzka egunkarietan. Beraz, dagoena ez da luzitzen.

Poesiak ez dauka oihartzun mediatiko handiegirik. Euskal literaturak nolabait, nobela edo ipuingintza mimitzen ditu bereziki. Poesia hor dago, eta poetak ere hor gaude, baina poesia ez da fenomeno soziala.

Komunikabideen garrantzia azpimarratu izan duzu behin eta berriz. Zein garrantzia eduki dezakete komunikabideek euskal literaturan?

Nik uste euskal nortasunak jarri behar direla agirian. Askotan, espazio ezak laburtzera eramaten gaitu. Kontua da nola asmatu euskal literaturari lekua ematen. Hori da ardatza. Laburduraz betetako mundu batean bizi gara eta komunikabideak garrantzia handikoak dira. Ikusita komunikabide handiek gure gizartean duten eragina eta aldi berean nola komunikabide handi horiek nola jendearen bizipenak tribializatzen dituzten askotan, nik uste tokian tokiko proiektuek garrantzia handia dutela eta nolabait hautsi egin behar dutela komunikabide handien arrasto hori. Ez lukete jo behar handiak imitatzen, baizik eta beste perspektiba batzuk eman beharko lituzkete.

Karmele Iturbe psikoterapeuta



Ze arazoeekin joaten da jendea psikoterapia egitera?

Modu ezberdinetan sufritzen ari diren pertsonak etortzen dira; asko deprimituta, beste batzuk ikasketetan edo lanean arazoeekin, baita bikote harremanetan ongizate falta edota antsietate edo estresak jotakoak ere etortzen dira.

Eta nolakoa da sesio bat, testak eta dibana erabiltzen al dituzu?

Dibana ez, testak noizbehinka, baina ez eskolan edo lanean pasa izan dizkigutenak bezalakoak. Nire helburua diagnostikoa argitzen laguntzea eta informazioa biltzea izaten da.

Zenbat denbora irauten du sesio bakoitzak?

Nik ordu beteko sesioak egiten ditut.

Gertatzen da gaizki sentitu baina nondik hasi eta zer kontatu ez jakitea. Horrelakoetan gidari moduan galderak egiten ditut.

Zertaz hitzegiten da sesio batean?

Gaiak pertsona berak ekartzen ditu. Gaur egungo arazo konkretuak izaten dira nahiz eta sarritan oroitzapenak ere gogora etortzen diren.

Eta gaizki sentitzen bazara baina ez badakizu nondik hasi, zer kontatu?

Noski hori ere gertatzen da. Horrelakoetan nik gidari moduan galderak egiten ditut, pertsonari gertatzen zaion horri buruz argitasun gehiago izaten laguntzeko.

Baina intimitate guztia kontatu behar al da?

Noski ezetz, norberak badaki zer kontatu nahi duen eta noraino sakondu nahi duen. Terapia pertsonaren beharretara egokitzen da ez alderantziz, prozesu guztiak ezberdinak eta pertsonalak dira.

Zer egiten duzu zuk?

Entzun eta sufrimenduaren apoio izan, bisio katastrofistak (adib: niri beti okerrera gertatzen zait) horrelako pentsamendu okerrak ikusten eta eraldatzen lagundu. Gaitasun pertsonalak azpimarra-

Norberak badaki zer kontatu nahi duen eta noraino sakondu nahi duen. Terapia pertsonaren beharretara egokitzen da ez alderantziz.

tu, beldurraren aurrean animatu, norbera den hori ulertzen lagundu besteekin elkarbizitza eta ulermen hobetzeko...

Jendeak tratamendua bukatutakoan zer esaten dizu?

Biziagoak sentitzen direla, arazoetaz beste ikuspuntu bat dutela. Bikote komunikazioan ongizate handiagoa lortu dutela elkar errepote gutxiago eginaz eta harreman sexualetan gozamen gehiago izanaz.

Hitz bat?

Esperantza

Gomendio bat?

Momentuan momentukoa.

Karmele Iturbe Eguren Psikoterapeuta

Labeaga kalea, 66 - tarteko solairua A (Homeopatia Zentroa) Urretxu

Tel.: 943 72 55 66 - 676 300 582

karmeleiturbe@hotmail.com

Beasaingo Aizkorri Mendizale elkarteak antolatuta: II. Aizkorriko Bira, maiatzaren 9an

raupen luzeko
II. Aizkorriko Bira mendi
ibilaldia jokatu da
maiatzaren 9an, Beasaingo
Aizkorri Mendizale
elkarteak antolatuta.
Goizeko 6etan abiatuko
dira lehenengo parte
hartzaileak eta 50
kilometrotik gora burutu
beharko dituzte berriz ere
irteera puntura itzuli
aurretik. Benito Aiestaran
elkarteko kideak kontatu
dizkigu ibilaldiaren
xehetasunak.

Dataren inguruko saltsaren on-
doren, azkenean, maiatzaren
9an izango da.

Bai, bai. Hasieran ekainaren 13rako pentsatu genuen arren, Azkoitiko 'Zazpi gurutzetako' mendi-martxarekin batera tokatzen zela konturatu ginen, eta berehalakoan data aldatzeari ekin genion. Ez zen erabaki erraza izan, izan ere, dena data jakin bati begira antolatzen ari ginenean, hilabete aurreratzea... Baina helburua ahalik eta jende gehienak parte hartzea denez, '14 orduko'-aren aurretik egitea pentsatu genuen, mendizaleek bertarako prestakuntza gisan erabili zezaten gurea, eta ez genuen aukera handirik data aukeratzeko. Dena den, lehenengo 'Aizgorriko Bira'-k izan zuen arrakasta kontuan izanik, gu behintzat itxaropentsu gaude.

Bigarren urtea izango da, alda-
ketarik izango al da lehenengoar-
ekin alderatuta?

Urte batetik bestera, beti izaten dira aldaketak, gutxienik



antolaketari dagokionez, baina ibilbideari berari dagokionean, ez dugu aldaketarik egin. Orain bi urte parte hartu zuten mendizaleen aholkuz, ibilbidea behintzat ez ukitzea pentsatu dugu.

Aldaketa sakon bat behar duena, gure irteera puntua da. Bertan izan genituen gure akatsik eta arazorik larrienak. Hau dela eta, ordainketak aurreratzea pentsatu dugu, datu guztiak aldeztu aurretik ateratzea, irteera erraz eta arina izan dezagun.

Ibilbidea, kontrol puntuak, abia-
tuallamentuak... horretan beraz,
aldaketarik ez da izango.

Ez, ez. Ibilbidea, kontrol puntuak, abituallamentuak... orain bi urte nahiko ondo asmatu genuelakoan gaude. Gure ustetan, gai horiek errepikatzea merezi du, ez baikeen kritika bakar bat jaso hauei dagokionean. Gure helburua, ondo dagoena ondo mantentzea da, eta gaizki egin genuena ahal den guztia zuzentzea.

Izena emateko zein bide erabil
daiteke?

Izen emateko epea, apirilaren

19an ireki genuen. Moduari dagokionez berriz, hiru eratarakoa zabalduko dugu: Internet bidez, www.mendikoweb.com helbidera sartu eta gure mendi-martxaren atalean sartuaz; e-mail bidez, aizgorri2004@jazzfree.com helbidera idatziz; eta elkartera bertara hurbilduaz.

Kasu guztietan, aldeztu aurretik Euskadiko Kutxara hurbildu eta diru sarrera egin beharko da. Aurten 15-tan jarri dugu, bertan parte hartu ahal izateko diru-sari gisa, eta diru sarrera hau egiteko kontu korrontearen zenbakia berriz, honakoa dugu: 3035.0017.19.0170073514 izen abizenak zehaztuaz.

Esan beharrik ez da, egunean bertan ere izen emateko modua izango dela, 5,30ak aurretik. Halere, eta arazoak ahal den neurrian gutxitze arren, parte-hartzaile guztiei eskertuko genieke ahal den neurrian behintzat, aldeztu aurretik izen emateak egingo ba lituzkete.

Zein aholku emango zenizkieke
parte hartzaileei?

Aholkuen garaia iristen denean, denok aholku berberak



ematen baditugu ere, duen garrantzia kontuan izanik, berriz ere gai berdinetara joko nuke nik ere.

Jendea aldeztu aurretik behar bezala prestatuta etorri dadila. Oinetakoak lehen ere erabilitakoak izan daitezela (oinetako berriekekin, hanketako arazoak izateko arrisku handia dago). Ibilbide guztian zehar egongo diren atsedendaldi guneetan, atsedenditxo bat hartzea komeni dela, indarrak hartu eta gorputza bere onera etorri dadin. Ura edan behar da ibilbide osoan zehar. Uda oso garrantzitsua da gorputzarentzat, eta ez da egarritzeko zain egon behar ura edateko. Jakin badakigu, gorputzak mineral asko galtzen dituela honelako ibilbide bat egitekoan, beraz, edan uda lasai. Eta lehen esan dudana bezala, eta arazorik ez izate arren, izen ematea ahalik eta azkarren egin.

Besterik aipatzeko?

Behin eta berriz errepikatu nahi genuke, Goierriko bailara osoko mendi-festa dela guk bi urtean behin antolatzen dugun hau, eta festa handi honetan denok parte-hartzaile edo ikusle moduan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Xabier Lasa 'Ramon' txirrindulariak 1.200 euro jokatu nahi ditu Goierriko korrikalariei desafioa: Erauskin auzotik Usurbe gaineraino

Goierriko edozein korrikalariri egiten dio desafioa Xabier Lasa 'Ramon'ek: Erauskin auzotik, 4 baserrietatik, Usurbeko gaineraino nor lehenago iritsi. Arriarandarra da Ramon eta Goierriko hainbat txirrindu igoeretan parte hartu izan du.

3 kilometroko distantzia dago Erauskin auzotik Usurbera. Ramon txirrinduan eta aurkaria korrika, biak batera irtenda, zein lehenago iritsi da apustua. Egitekotan uztailan izango litzateke. Eta alde bakoitzak 1.200 euro jarri beharko lituzkete. Inork desafioa onartzen badu, Ramon Beasaingo Niza tabernan egongo da apirilaren 30ean, ostirala, iluntzeko 8etatik 9,30ak arte.

Aldapa handia dago, zenbat eta aldapa handiago oi-



nezkoak abantaila du. "Okerrena euria egitea da, gorpilak irrist egiten duenez txirrindulariak desabantaila du. Desafioaren baldintzak aldatzekotan hori kontutan hartu eta bustia badago ez egiteko baldintza jarriko dut nik".

Zenbat denborako lana izango den galdetuta ez digu gauza handirik argitu. "Egia esanda oraindik ez dut serio-

an hartu, ez dut inoiz topera egin. 17 minututan eginga daukat, hori jaitsi daiteke, baina, zenbatean jaitziko dudan ez dakit. Horrelako aldatetan minutuak erraz joaten dira. Kilometro bat 5 minututan egiten da eta hurrengo 6tan, hori aldaparen arabera", dio Ramonek.

Arriarandarrak aspaldidantik zuen horrelako zerbait


Hitzordua:
Beasaingo Niza tabernan, apirilaren 30ean, iluntzeko 8etatik 9,30etara

egiteko gogoia: "Pentsatu nuen, edo aurten edo inoiz ez. Oso gustura nabil txirrinduan eta helbururen bat jarri nahi nuen gehiago prestatzeko. Beti Goierri inguruko igoeretan parte hartzeko prestatzen nintzen, entrenamendu motzak eginez. Aurten fondo gehiago ari naiz egiten, oinarria hartzen. Oraingoz nire kontura ari naiz prestatzen eta inork desafiari heltzen badio prestatzaileekin hasiko naiz".

Dirua berak jartzeko asmoa du, "koadrilakoak beraien jartzeko prest agertu dira baina nahiago dut neronek jarri eta beste inor honetan ez sartzea", dio Ramonek.

MUGICAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68
ORDIZIA

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea


Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

*Etxearen
epelean*



SUTAN

Mugitegi industrialdea, B bidea
20700 URRETXU
Tel.: 665 737 302 / 30



- X Sukalde
klasikoa
- X Burdin
galdatuzko
tximiniak
- X Parrilak
- X Egurrezko
simulazioa
poliuretanoan
- X Poliuretanozko
adreriluak,
arbelak...
- X Harlandua
- X Leihoak
- X Argizuloak

ARAMAKO TABERNA

Aramako plazan

Tel.: 943 888 953

*Toki lasaia eta
giro euskalduna*



Eguneroko menua 8 euro kafearekin

Asteburuko menuak 18 euro

Kaxuelitak

Bataioak

Pintxoak

Jaunartzeak

Udako terraza aparta!

Plater konbinatuak

Laneko afariak e.a.



GARMENDIA

Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoklabean*

diselua: acymulmedia




TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasegarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D erduetan



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

Izen ematea:

ekainaren 1etik 9ra arte

J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g.
Urretxu 20700

Tel./Faxe: 943 721413- 943 721403
E-posta: jmiparragirre@edunet.es

Kirola bi lerrotan



Beasaingo Zelan dardo taldeko neskak Munduko txapelketan

Martxoaren 28an, Katalunian, Calellan, emakumezko dardo Espainiako txapelketa irabazi ondoren, apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, Estatu Batuetako Las Vegasen izango dira Munduko txapelketa jokatzeko. Gipuzkoako selekzioaren izenean, bost beasaingar lehiatuko dira: Kontxi Garmendia, Marta Iraola, Begoña Hernandez, Karmen Rivela eta Mertxe Gonzalez.

Espainiako txapeldun

Martxoaren 28an jokatu zen Espainiako txapelketan, Beasaingo Zelan dardo taldearen izenean, lau talde lehiatu ziren, 301 eta 501 arloetan. Emakumezkoak itxaropentsu joan ziren Katalunia aldera, aurretik Gipuzkoako txapelketetan partidarik galdu gabe joan baitziren. Azkenean, helburua beteta itzuli ziren herrira, Munduko txapelketara joateko txartela besapean zutela.

Iñaki Azurmendi aurrera Urrezko Aizkoran

Apirilaren 18an Urrezko Aizkorako beste kanporaketa bat gainditu zuen Iñaki Azurmendi arriarandarrak. Aitor Senosian erraz garaitu zuen.



Hiru Goierriko talde herri arteko herri kirol txapelketan

Idiazabal, Ordizia eta Segurako taldeak lehiatuko dira Xiba Euskal jolas, joko eta kirolen Topaguneak antolatutako Euskal herrien arteko euskal joko topaketan. Maiatzaren 1ean, arratsaldeko 5etan, Andoainen jokatu dute Gipuzkoako kanporaketa. 16 talde lehiatuko dira bertan. Proba ugari burutu behar dituzte: soka-tiran, trontzan, tokan, dantzan, ingudean, lasto altxatzean, harria jasotzen, txingatan, lokotxak biltzen, giza-frogan eta zakua eramaten. 12 lagunek osatzen dituzte taldeak, 6 neskek eta 6 mutilek. Hurrengo alean izango dugu emaitzen berri. Argazkian, Idiazabalgo taldeki batzuk.

Antonio Alustiza zeraindarra Goierriko bola txapeldun

Gabirian bukatu zen Goierriko bola txapelketa joan zen apirilaren 3an. Zeraindar batek lortu du Goierriko txapela: Antonio Alustizak (367 birla bota ditu guztira). Bigarren Legazpiko German Gereñu izan da (365 birla). Hirugarren, Segurako Xepiño Agirre (364 birla). Laugarren, Legazpiko Marcos Medina (360 birla) eta bosgarren, Segurako Martxeliño Agirre (360 birla). Argazkian, Antonio Alustiza artxiboko argazkian.



Esquatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

berriz aranburu
ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ:

Apirilak 29: 'Pay day' laburmetraia eta 'El circo', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

Maiatzak 6: 'Tiempos modernos', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Scary movie 3'. Ostirala 23: 19:30 - 22:15.

Larunbata 24: 19:30 - 22:15.

igandea 25: 19:30 - 22:15.

Astelehena 26: 19:30 - 22:15.

pailazoak

LAZKAO:

Apirilak 24, Kiki, Koko eta Moko pailazoak, plazan, 12:00etan.

Apirilak 30, Takolo, Pirritx eta Porrotx, 17:30ean.

musika

IDIAZABAL:

Maiatzak 2, Jean Bordaxar eta bere taldea, plazan, arratsaldean.

LAZKAO:

Apirilak 23, Imuntzo eta Belokirekin erromeria, Lazkaoako tabernariet antolatuta, 23:00etan, plazan.

Apirilak 24, San Benito ikastolako Xanbe abesbatza, parrokian, 20:00etan.

Apirilak 24, Drindots, plazan, 23:00etan.

Apirilak 27, Luhartz musika taldea, 20:00etan.

Apirilak 29, Egan, plazan, 20:00etan.

Apirilak 28, Betagarri eta Kauta taldeak, plazan, 23:00etan.

Maiatzak 1, Paco Formoso eta bere mariatxia, 23:00etan.

bestelakoak

ORDIZIA:

Maiatzak 1, Kulki taldearekin 'Baserriko jolas eta jokoen jaia', plazan, 17:00etan. Antolatzailea: Ordiziako Udala eta Hitzaro, EBPNren baitan.

bertsoak

IDIAZABAL:

Martxoak 1, Bertso parodia Hernaniko bertso eskolako ikasleen eskutik, Arretxe elkartearen aurrean, 19:30ean. Ondoren bertso afaria.

hitzaldiak

BEASAIN:

Apirilak 26, 'Norbere buaren estimazioaren garrantzia', Erretiratuen etxean, 18:00etan.

IDIAZABAL:

Apirilak 27, 'Gaztaia sukaldean', Iker Markinez Kuko jatetxeko sukaldariaren eskutik, 18:30ean, Arretxe elkartearen.

Apirilak 30, 'Idiazabalen garrantzia euskal turismoan, oraina eta geroa', 19:30ean, Artzai Gaztako lokal berrian.

Hizlariak: Mercedes Rodriguez (Eusko Jaurlaritzako turismo zuzendaria) eta Nikolas Osinalde Goiturreko zuzendaria.

antzerkia

BEASAIN:

Apirilak 30, Antzerki Garaia: Hika taldearen 'Ixa' antzezlan, Usurbe antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

GABIRIA:

Apirilak 23, 'Kutsidazu bidea Ixabel', frontoian, 22:00etan.

ORDIZIA:

Apirilak 29, Trikuharri taldearen 'Inaxitoren ametsak' bertso-antzerkia, Barrenan, 18:00etan, 8-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Antolatzailea: Ordiziako Udala eta Hitzaro, EBPNren baitan.

ZALDIBIA:

Apirilak 23, 'Hitzak patriketan', 3-6 urte bitarteko haurrentzat, Herri antzokian, 17:30ean.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53

Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN

Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

dantza

LAZKAO:

Apirilak 24, Berako Gure Txokoa eta Lazkaoko Oin Arin dantza taldeen saioa, plazan, 18:30ean.

Apirilak 28, Oin Arin dantza taldea, 17:30ean.

Maiatzak 1, XXIV. Dantza libreko txapelketa, plazan, 18:30ean.

erakusketak

BEASAIN:

Apirilaren 23an hasita, Lurdes Ulazia eta Ana Santiagoren zur torneatuen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Apirilaren 30era arte, Gillermo Ertetxearen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Apirilaren 30era arte, Kontxiren 'Legazpi eta Burdina' erakusketa, Salvatore hotelean

ORDIZIA:

Maiatzaren 7ra, Juan Carlos Cardesin, Iñaki Gonzalez Gurpegi eta Jose Antonio Fermin Gorosabel artisten 'ExP 2004' izeneko erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Apirilaren 21 arte, 'Ibaialde' erakusketa, Ardixarra etxean.

mendi irteera

BEASAIN:

Apirilak 24, erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Beasain-Ojartzi-Gorrotxategi oilategia-Idiazabal-Beasain. Irteera, 8etan, geltokitik.

Apirilak 25, Aizkorri Mendizale Elkarte: Mendi bizikleta ibilaldia Ulibarriko urtegiaren inguruan.

ORDIZIA:

Apirilak 25, Ordiziako Mendizaleak: Ordizia-Mandubia-Idiazabal.

Maiatzak 2, Ordiziako Mendizaleak: Ordizia-Enerio-Pabe-Ganbo-Larraitza-Gaintza-Ordizia.

Josune Bereziarturen argazki erakusketa Lazkaon

Kultur etxean, bi erakusketa izango dira maiatzaren 1era arte: Josune Bereziarturen argazki erakusketa areto nagusian eta bigarren solairuan, Ikastolako ikasleen lanak, ikastaro ezberdinetako lanak eta emakume elkartekoen lanak ikusteko aukera izango da. Ordutegia: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Apirilak 23,

Liburuaren Nazioarteko eguna Lazkaon

Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko eguna ospatuko dute Lazkaon. Egun honetan liburuak %10eko deskontua izango dute Gerriko liburutegietan. Egun honetan bertan, beste bi ekitaldi izango dira: 17:30ean, Xabier Mendigurenen 'Arbelaren gainean' liburuaren aurkezpena eta 19:30ean, Imuntzo eta Belokiren 'Ganbaran bai' disko berriaren aurkezpena. Biak, Gerriko liburutegietan.

Goieniz zine klubaren ziklo berria: 'Begirada' Charles Caplin-i

Charles Chaplin aktore eta zine-zuzendari britainiarra protagonista izango da Goieniz zine klubak antolatutako 'Begirada' zikloan. Charles Chaplinen lanari erreparoa egingo zaio, lau saiotan. Ohi bezala, Beasaingo Usurbe antzokian, gaueko 9etan.

Atzo, apirilak 22, 'One A.M.' eta 'The Kid' ikusteko aukera izan ziren. Hemendik aurrerakoak jarraian dituzue:

Apirilak 29: 'Pay Day' (1922) eta 'El circo' (1927).

Maiatzak 6: 'Tiempos modernos' (1935).

Maiatzak 13: 'El gran dictador' (1940).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta


(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Apirilak 24-25: Rekalde

(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.

Maiatzak 1-2: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA



Tel./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarako, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. 3 logela, sukalde ederra eta egongela balkoiarekin. 665706452.

➡ Peñiscolan eta Vinarozan, apartamentuak salgai, hondartza eta golf zelaiaren ondo-ondoan. 618255000.

➡ Andoainen apartamentua salgai. Gazteen-tzako egokia. Sukaldea, bainua, leihoak eta ataria berrituak. 665706452.

➡ Beasaingo Porteria inguruan, 87 m²ko etxebizitza salgai. Trastalekuarekin. 943028517 (Ana-Xabi). 21:00etatik 22:00etara deitu.

➡ Beasain erdigunean, 70 m²ko etxebizitza salgai. 132.225 euro (22.000.000 pezeta). 629744198.

➡ Igeldon, etxe bifamiliarra salgai. 300 m²koa. 2000 m²ko lur-saila, 150 m²ko garaje itxia. Igerilekua. Duela 3 urte eraikia. Itsasora begira. 680672628.

errentan eman

➡ Abuztuan, Zarautzen, etxebizitza alokatzen da. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Hondartzatik gertu. 665719541.

➡ Apartamentua alokatzen da Conil-Cadizeko hondartzaren ondoan. Ekipatua. Asteka edo hamabosteka. 680442668.

➡ Apartamentua alokatzen da Salouko hondartzaren lehen lerroan. Ekipatua. Aire egokitua. Igerilekua. Garajea. 943814238 - 629989899.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

Pabilioiak

salgai

➡ Sagardotegia jartzeko Legorretan pabilioi ederra salgai, terreno eta guzti. 635705150.

Lursailak

salgai

➡ Lurzoru urbanizatua salgai Lazkao. Inmobiliariak izan ezik. 21:00etatik aurrera deitu. 658704793.

Garajeak

errentan eman

➡ Beasaingo erdigunean, garajea alokatzen da. 636218240.

➡ Seguran garajea alokatzen da. 616806384.

Negozioak

eskualdatzea

➡ Ordiziako erdigunean, taberna eskualdatzen edo traspasatzen da, jubilazioagatik. 943882883.

Lokalak

errentan eman

➡ Beasainen lokal komertziala alokatzen da. Gune oso ona. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Animaliak

zaintzeko

➡ Txakurrak zaintzeko gunerik dagoen jakin nahi genuke. 696218195.

salgai

➡ Larre behiak salgai. 652741068.

➡ Seguran, ardien ku-poak saltzen dira. 696220099.

Ibilgailuak

salgai

➡ Volkswagen Golf GTi salgai. 16 balbula. Egoera onean. 615768977.

➡ 20 zaldiko BJR traktore artikulatua salgai. Trakzioa 4 gurpiletan. 2.400 euro. 19:00etatik aurrera deitu. 943889647. Pablo.

➡ Suzuki mendiko motorra salgai. 49 zaldi. 658711718.



BIOK ZERBITZUAK, S/L

Enpresetako aholkularitza orokorra

Errenta aitopenak egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

☎ 943 88 44 00
Goierri, 12
ORDIZIA
www.biokzerbitzuak.com

LAZKAO

Etxebizitza **unifamiliarra** eraikitza goaz **lorategiarekin**


943 161 032
652 775 741

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra** eraikitza goaz 450 m²-ko **lorategiarekin**


943 161 032
652 775 741



sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Bestelakoak

salgai

- ➔ Mendiko eskiak salgai. Blizzard 1'80; fijazioak: Silvretta 404; botak Dynafit Lou Tech 4, 40 zenbakia. Dena 120 euro. 657775363. Gaez deitu.
- ➔ Motozikleta salgai, prezio onean. 150 euro. 687374559.
- ➔ Ur lasaietako piragua eta arrauna salgai. 30 euro. 657775363. Gaez deitu.
- ➔ Bigarren eskuko margotzeko kabina saltzen da Lazkaon. 10 x 4 x 2,75 m. 609735621.
- ➔ Trikitxa berria salgai. 943084505.
- ➔ Pianoa salgai. Ia berria. 943884557.
- ➔ Marrazketarako mahaia salgai, teknigrafoarekin. 943884557.
- ➔ Telefono mugikorra salgai. Nokia 83-10 markakoa. Esku libreak sistema. Garantiarekin. Berria. 619311255.

➔ Renault Scenic-entzako barrak salgai. Originalak. Berri-berriak. Erdi prezioan. 666956883.

➔ Seat Leon FI-en 17" llantak salgai, kubieta eta guzti. Prezio interesgarria. 687638507.

➔ Mahaiari eransten zaion haurrentzako aulki eta egurrezko sehaska salgai. 670422051.

➔ Lau pertsonentzako karabana salgai. Bero-gailuduna eta urte osoan aterpean egona. 6093030621. Arratsaldeetan deitu.

➔ Virutex A-92 zepil-loa salgai. 1100 batio. 943085206.

➔ Autoarentzako elur-rretarako kateak salgai. Spiker-Spider markakoak. 943085206.

➔ Salvat entziklopedia salgai. 943882278 - 635747301.

erosi

➔ Pianoa ikasteko teklatura erosiko nuke. 943882488.

➔ Bigarren eskuko piano elektrikoa erosiko genuke. 696218195.

opari

➔ Baserrian, lurra lantzeko tresnak behar ditugu. 696218195.

Lana

eskaerak

➔ Sukaldari laguntzaila behar da Zegamako Ostatuan. 943801051 - 686125325.

➔ Neska bat behar da asteburuetan Ordiziako taberna batean lan egiteko. 605772623.

➔ Beasainen, asteburuetan tabernan lan egiteko neska edo emakume bat behar da. 943085481

eskaintzak

➔ 26 urteko neska prest dago, orduko, garbiketa lanean aritzeko. 687374559.

➔ Ingelerako klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak edo bakarka. Merke. 665709146.

➔ Emakume bat prest dago adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. 943883182 - 628431006. Mariaje.

➔ Ordiziako neska gazte bat prest dago uztailean, goizez, edozein lan egiteko. Dendari, tabernari, garbiketarako, haurrak zaintzeko... Ez zait axola ingurueta mugitzea. 943884898.

➔ Ordiziako mutil gazte bat prest dago uztailean, goizez, edozein lan egiteko. Haurrak zaintzeko, dendan lan egiteko, tabernari, garbiketarako... 943084294.

6 ADOSATU BERRI LEGORRETAN

Muguruza Etxegintza S.A.-k goi mailako 6 etxebizitza adosatu eraikitzen ditu

Informazioa eta salmenta:

943 85 73 54



Lazkaoko txistulariak 1975. urtean

Xabier Muruamendiarazek utzi digun argazkia 1975eko azaroaren 1ean ateratakoa da eta bertan ageri direnak Lazkaoko udal txistulari taldeko partaideak dira.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Xabier Muruamendiaraz, Jon Gurrutxaga, Joxe Esteban Urrea, Juan Ramon Arratibel 'Pites', Patxi Xabier Agirre eta Xabier Agirre.

Pikotxean: Fidel Agirre, Xabier Garmendia, Iñaki Garmendia eta Xabier Mingo.



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

☎ 943 16 13 61
Jose Lasa, 3
LAZKAO

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 26 31
Gurutze, 2 LAZKAO

IÑAKI BARANDIARAN
arrandegia

*San Prudentzio jai
gorioatsuak denoi!*

☎ 943 88 00 56
San Jose, 29 LAZKAO

JOSUNE
arrandegia

☎ 943 18 03 67 ATAUN

Mundu-Bi

**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 943 88 74 58
LAZKAO

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Negueruela

Jai zoriontsuak lazkaotar guztioi!

**BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA**



☎ 943 16 08 30

Jose Lasa, 3

LAZKAO



f r u t a k
amatriain



Jai zoriontzuak opa dizkizuegu!!



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2004-05 Eskaintza

INGENIARITZA

Mondragon Unibertsitatearekin uztarturik
- Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa (Lotura-sistemak).

BATXILLERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknologikoa
Unibertsitatara eta goi mailako zikloetara zuzendurik.

LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Goi mailako heziketa zikloak ondorengo arlo hauetan:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

LANBIDE HASTAPENAK

DBH Gainditu ez arren, Lanbide baten oinarritzko ezaguerarekin lanean hasteko, eta erdi mailako zikloetara sartzeko aukerarekin.

Irakaskuntzako hizkuntza nagusia EUSKARA izan arren (D eredua), ikasleak eleantzasunean hezitzeke, ingelesak eta gaztelaniak ere heziketa zikloetako zenbait modulutan lekua dute.

LAN PRAKTIKAK ETA LAN BURTSA

Laneratzte tasa %95



AURRE INSKRIPZIO EPEAK

Ingeniaritza: Otsailak 2tik Ekainaren 18ra.

Batxilergoa: Maiatzaren 3tik 7ra.

Zikloak: Ekainaren 1etik 9ra.

Lanbide Hastapenak: Ekainaren 1etik 15era

Ate irekien eguna: maiatzak 22 goizeko 9,30etatik 12etara.

